


# KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2018ko azaroa / 288. zenbakia

[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)  



Oñatin borobilduko du mendeurrena  
**Eusko Ikaskuntzak**



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez

# Eusko Ikaskuntzak

## Oñatin borobilduko du mendeurrena

**Azaroaren 23 eta 24an egingo dira ekitaldi nagusiak parrokian eta plazan** Euskal Herriko agintari nagusiak batuko dira Oñatin, herriari zabalik dagoen ekitaldi instituzional eta historiko batean.



### 1918ko IRAILAK 1-8

Oñatin ospatu zen Eusko Ikaskuntzaren I. Biltzarreko irudiak (Argazkiak.: Eusko Ikaskuntza. Kutxatega / Ricardo Martin funtsa)

**E**uskal Herriko kultur hiriburu bihurtuko da Oñati azaroaren 23 eta 24an, Eusko Ikaskuntzaren mendeurreneko ospakizunak direla eta.

Hilaren 23an *Geroa Elkar-Ekin* goiburutzat hartuta, Eusko Ikaskuntzak burutu duen XVIII. Kongresuaren emaitzak aurkeztuko dituzte. 2015ean ekin zion erakundeak Euskal Herriaren etorkizunari buruzko gogoeta eta diagnostikoa osatzeari, eta Oñatin plazaratuko duen Liburu Zuria-k zenbait erantzun proposatuko ditu.

Hilaren 24an ekitaldi instituzionala izango da, lurralde guztietako erakundeetako ordezkariak parte hartuko dute. Oñatzen Dantza Taldeak *Soka-Dantza* eskainiko du eta ehun urte lehenago bezala, autoritateek ere parte hartuko dute. Antzerkia eta musika saioak ere izango dira. (Ikusi egitarau osoa 4. orrian).





**Etxe-Aundi**  
Hotela · Julatekoa

Tel. 943 78 19 56  
www.etxeaundi.com



Euskal Herriaren etorkizunerako garrantzi handia izan zuen **Eusko Ikaskuntzen I. Kongresua** hartu zuen Oñatik 1918ko irailaren 1etik 8ra. Iruñeko, Baionako eta Gasteizko gotzainek eta lau Aldundietako lehendakariak osatutako Patronatuak antolatu zuen. Alfonso XIII. erregea ere bertan izan zen, eta euskal gaietan sasoi hartan zeuden pertsona jakintsuenak ere bai, hala nola: Julio Urkijo, Karmelo Etxegarai, Resurrección Maria Azkue, Telesforo Aranzadi, Joxe Migel Barandiaran, Jesus Guridi eta beste hainbat.

Zazpi sailetan banatu zen kongresua: 1. **Arraza**; 2. **Hizkuntza**; 3. **Historia**; 4. **Artea**; 5. **Irakaskuntza**; 6. **Euskal Gizarte-antolamendua**; 7. **Euskal Ikaskuntzen Elkarte**. Guztira 900dik gora parte hartzaile izan ziren, eta ekitaldi batzuetarako areto handia behar zenez, Garaineko pospolo-fabrika zaharreen milatik gora jarleku zeuzkan aretoa egokitu zen agertoki batekin. Hainbeste jende hartzeko ostatu eta jatetxe aski ez zegoenez herrian, batzarkide askori etxe partikularretan bilatu zitzaion lo-lekua. Gipuzkoako diputazioko tronpetalariak lehendabizikoz jo zuten ofizialki gerora hain ezaguna bilakatu den *Agur Jaunak* ereserkia. Hitzaldi eta ikastaroez gain, izugarrizko jai giroa egon zen Oñatin kongresuak iraun zuen bitartean. Hona hemen kronika. (Iturria: [www.dantzan.eus](http://www.dantzan.eus)).

#### Irailak 1: Ongi-etorria

Kotxe ilara luzeak eta jende multzo handiak batu ziren plazan. Arratsaldeko 17:00etan Alfonso XIII. iritsi zen eta meza entzun ostean Garai fabrikako saloian eman zioten hasiera kongresuari. Alkateak, aldundietako presidentek, Gasteizko eta Baionako apezpikuek eta erregeak hartu zuten hitza, besteak beste. Gaueko festan suzko zezena eta irrintzilariak izan ziren.

#### Irailak 2: Bizkaia eta Gipuzkoako dantzak

Goizeko ekitaldien ondoren, Bilboko Eusko Gaztediko dantzariak ezpata-dantza egin zuten eta gorulariek lihoa landu zuten hainbat kanta abestuz. Ondoren, Errenteriako dantzariak aritu ziren eta Oñatz taldeak Korpus dantzak egin zituen. Arratsaldeko ikastaroen ondoren, "Paulino" seikoteak kontzertua eman zuen eta bordon-dantza abestuz amaitu zuten saioa.

#### Irailak 3: Herri kirolak eta antzerkia

Goizeko eta arratsaldeko ikastaroez gain, kirol erakustaldiak

## Orain dela 100 urteko kronika



eta antzerkia nabarmendu ziren. Eguerdian Gipuzkoa eta Bizkaiko palankariak aritu ziren barrak jaurtizeko duten abilezia erakusten. Arratsaldean atletismo jaialdia egin zen. Iluntzean Euskal Antzerkiaren Komisioak bi antzezlan taularatu zituen: V. Garitaonandiaren *Itziartxo* eta Catalina Elizegiren *Garbiñe*.

#### Irailak 4: Mutil-dantzak

Baztango dantzariak erakustaldia eta lokotx-bilketa saioaz gozatzeko aukera egon zen. Iluntzean beste bi antzerki obra eskaini zituzten: Jose de Olaizolaren *Oleskari zarra* eta Abelino Barriolaren *Gai dagonaren indarra*.

#### Irailak 5: maiatzeko erreginak

Oñatiko plazan, Maiatzeko Erreginen ohitura erakutsi zen, horretarako prestatu zituzten Oñatiko hainbat neskatok. Tradiziozko ezkontza baten irudikapena ere egin zuten, ezkongaiaren arrea karro batean zeramatela. Arratsaldean kontzertu inprobisatua eskaini zuen Aita Donostiak beste hainbat musikarirekin batera.

#### Irailak 6-7: Herri kirolak eta musika

Lan intelektualez gain, irailaren 6an nafarrak etorri ziren pilotan aritzera. Hari zulatzaileak ere aritu ziren plazan. Arratsaldean musika emanaldia izan zen. Hurrengo egunean, erreboteko partiduak ikusmira handia sortu zuen plazan. Iluntzean, kongresuaren antolatzaileek Oñatiko herriari eskerrak emateko, bertako ospitalearen aldeko festa antolatu zuen. Euskal Poesiaren festa izena eman zioten ekitaldiari.

#### Irailak 8: Kongresuaren itxiera

Goizero moduan txistularien diara-rekin hasi zen eguna. Gero Bergarako musika bandak alaitu zituen kaleak. Ordurako Euskal Herri osotik etorritako jendez betetzen hasi zen Oñati. Musika, kanpaiak, suziariak... Parrokiako ate nagusitik prozesioa abiatu eta ondoren meza eta Bergarako bandaren kontzertua izan ziren.

15:00etan hasi zen biltzarraren amaiera ekitaldia. Julian Elorza diputatuak eskerrak eman zizkien lanean aritu diren guztiei, eta "Gora Euskal Herria" ohituarekin amaitu zuen hitzaldia. Bergarako banda *Gernikako arbola* jotzen hasi zen eta denak altxa ziren txaloka, kantuan.

Itxiera ekitaldiaren ondoren Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako diputatuek aureskua dantzatu zuten plazan, 27 gizon sokan. Ondoren, musika bandak eta bertsolariak hartu zuten lekukoa.



Alfonso XIII.a biltzarraren irekieran (Argk.: Kutxateka)



Tradiziozko ezkontza baten irudikapena (Kutxateka)

## Ehun urteko ibilbidea 1918-2018

Oñatiko lehen biltzarra burutu ostean, 1918ko abenduaren 22an eratu zen ofizialki Eusko Ikaskuntza, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako foru aldundien babesarekin. Euskal kultura-modernitatearen hasiera izan zen.

Gerra zibila hasi arteko urteetan egin zituen ekarpen handienak Eusko Ikaskuntzak. Horietako bat, zalantza barik, Euskaltzaindiaren sorrera izan zen, Oñatiko kongresuko aginduari jarraituz.

Arlo politikoari dagokionez, Hego Euskal Herriko Estatutua idatzi zuen Eusko Ikaskuntzak, hiru urteko lanaren ostean. Arabarrek, bizkaitarrek, gipuzkoarrek eta nafarrek bat egin zuten, bere zailtasun eta distantzia ideologiko guztiekin. Testu hartan oinarrituta idatzi zen gero Lizarrako Estatutua. Hego Euskal Herrirako unibertsitate baten proiektua ere mahai gainean jarri zuen Eusko Ikaskuntzak.

1978tik hona ere hainbat kongresu egin ditu erakundeak garaian garaiko gaien inguruan, aldizkari zientifikoak atera ditu eta hainbat ikastaro, hitzaldi, sari... antolatzen ditu.

2018az geroztik Ipar Euskal Herriko Euskal Hirigune eta Elkargoak Eusko Ikaskuntzaren kontseilu errektorean parte hartzen du, Euskal Herriko lurralde guztiak bilduz erakundean.



## Eusko Ikaskuntza eta Oñati historian zehar

Eusko ikaskuntzak lotura estua izan du Oñatirekin ehun urteko ibilbidean. Hona mugarri nagusiak.

**1918.** Eusko Ikaskuntzaren lehen kongresua ospatu zen Oñatin.

**1978.** Diktadura osteko lehen ekitaldia egin zuen Eusko Ikaskuntzak Oñatin. Ia lau hamarkadaz penintsulan debekatuta egon ostean, erakundearen jarduna berriz ere martxan jartzeko batzarra egin zen Sancti Spiritus unibertsitatean, irailaren 17an.

**1979.** Ekitaldi berezia egin zuen Eusko Ikaskuntzak Oñatin, azaroaren 4an, Joxe Migel Barandiaran erakundeko presidentea eta euskal kulturaren ikurra omentzeko.

**1992.** Barandiaran zendu ostean, ordezkoa aukeratzeko batzar berezia egin zen Oñatin. Gregorio Monreal hautatu zuten erakundearen historiako 3. lehendakari.

**1993.** Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuaren 75. urteurrena ospatzeko batzar berezia egin zen Sancti Spiritus unibertsitatean, irailaren 17an.

**2018.** Ekainaren 2an Eusko Ikaskuntzak *Ohorezko Bazkide* titulua eman zion Oñatiko udalari (argazkian une hori), ehun urteko ibilbidean eskainitako babesa eta harrera eskertuz.

### EGITARUA AZAROAK 23

⇒ 10:00 - 11:00

XVIII. kongresuko itxiera saioaren irekiera ekitaldia. Ondorioen eta esperientziaren kontaketa, prozesuan parte hartu duten gazteen eskutik.

⇒ 11:00 - 13:00

XXI. menderako Euskal Herrirako etorkizuneko erronken aurkezpena

⇒ 13:00 - 13:30

XVIII. kongresuaren amaiera ekitaldia

⇒ 15:30 - 17:30

Oñatiko monumento multzora bisita gidatua

⇒ 18:00 - 19:15

Antzerkia: *Hamaika amaren seme (alaba)*. Santa Ana antzokian (kongresukideentzat soilik).

### EGITARUA AZAROAK 24

⇒ 11:00 - 11:15

Agintari, bazkide eta herritarrei ongi etorria Foruen plazan.

⇒ 11:015 - 12:00

Agintariek eta Oñatzeko dantzariak osatutako Soka Dantza

⇒ 12:00 - 13:30

Ekitaldi ofiziala San Migel elizan. Musika, dantza eta Donostiako Orfeoiaren emanaldia

⇒ 13:15 - 13:30

Arizkungo dantza taldearen emanaldia

⇒ 14:00 - 16:30

Bazkaria (kongresukideentzat soilik)

⇒ 18:30

Antzerkia: *Hamaika amaren seme (alaba)*. Santa Anan



**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

Berezao Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64



**PAKITA**  
Altzariak

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

**IRAZOLA**  
Okindegia

Ostiral, asteburu  
eta jai egunetan  
baserniko agia,  
egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



Argk.: Kutxateka / Ricardo Martín

## Soka-dantza dantzatuko dute agintariek, orain dela ehun urte bezalaxe

**G**oiko argazkiak erakusten duen moduan, 1918ko biltzarraren amaieran Arabako, Bizkaiako eta Gipuzkoako diputatuek aureskua dantzatu zuten plazan. Pedro Laskibar izan zen aureskua, eta Jorge Satrustegi aritu zen atzesku, eta tartean 27 gizon sokan. Maria Gordo, alkatearen alaba, gonbidatu zuten aureskulariak dantzatzeko, eta Bizkaiako aldundiko presidentearen emaztea atzeskuaren dantza jasotzeko. Ondoren, beste 25 emakume sartu ziren sokara.

Bada, aurten ere, duela ehun urte bezalaxe, Soka-dantza dantzatuko dute Oñatiko plazan, azaroaren 24an, goizeko 11etan, Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenako ekitaldira bertaraten diren guztiei ongi etorria egiteko. Oñatz Dantza Taldekoak ariko dira dantzari, baina autoritateek eta Eusko Ikaskuntzako bazkideek ere parte hartuko dute.

### SOKA-DANTZA BERRESKURATU

Euskal Herrian aspalditik egin izan den dantza herrikoa da Soka-dantza, balio sinboliko handikoa. Dantzariak elkarri eskuak emanda soka bat osatzen dute, batasun irudia emanez, eta komunitatearen eta elkarbizitzaren ideia ederra irudikatuz, dantzariak osatzen dituzten

zubi edo arkuen bidez.

Sokaren bi muturretako dantzariak *Aureskua* -aurreko eskua- eta *Atzeskua* deitzen zaie. Eta, hain zuzen, Aureskuak soka-dantzan egiten duen dantza da, bere testuingurutik atera eta, gaur egun, ekitaldi, omenaldi eta protokolo askotan ohorezko dantza bezala egiten den aureskua.

1936ko gerra zibilaren ondoren bihurtu zen aureskua banakako dantza, soka-dantziatik



1918an Oñatin egin zen soka-dantzako irudiak (Kutxateka / Ricardo Martín)

bereizita, dantzaren indarra eta esanahia oinarri gabe utziz neurri batean, eskuz-esku osatutako giza-katean baitu bere benetako balio soziala soka-dantzak.

Azken urte hauetan soka-dantza berreskuratzearen aldeko mugimendua izan da hainbat herritan, eta Eusko Ikaskuntzaren mendeurrena abagune egokia izan daiteke urrats bat emateko bide horretan.

## Antzerki estreinaldia

'Hamaika amaren seme (alaba)' antzezlanaren estreinatuko dute Oñatin azaroaren 23 eta 24an



**E**usko Ikaskuntzaren mendeurrenaren harira, azken ehun urteotako euskal gizartearen bilakaera historikoa erakusten duen antzezlanaren, **Hamaika amaren seme (alaba)** estreinatuko da Oñatin azaroaren 23 eta 24an.

Baserri-mitologia artean indartsua zeneko karlismotik, beren ondorioetan asmaezinak diren gaurko ideologiaren haize otzan ezinetara arteko urrats desberdinak agertzen ditu obrak, etapa diferenteak nabarmenduz. Une argiak, oso une ilunak; etsipen eta itzaropenak. Garaian garaiko musika esanguratsua ere gehitu zaio obrari zenbait eszenatan.

Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzi eta Vene Herreroek zuzendutako antzezlanaren da. Arrasateko Duke antzerki taldeko kideek egingo dituzte aktore lanak.

Santa Ana antzokian izango dira emanaldiak.

# Anfibio eta narrastien paradisu

Aranzadi zientzia elkarteak 21 herpeto espezie (8 anfibio eta 13 narrasti) aurkitu ditu Oñatin, Gipuzkoako espezieen %75, eta Euskadin daudenen erdia. Oñatiko udalak emandako ingurumen bekari esker egin da azterlana bi urtetan. Ikerketa taldeko buru Ion Garinek eman dizkigu aurkitutako espezieen eta ondorioen berri. Oñati eremu garrantzitsua da bizidun zaugarri hauen kontserbazioa bermatzeko.



### Arrabio arrunta

*Salamandra atra*

Oñatiko baso, zuhaitz landaketa zein goi mendiko errekaetara ugaltzen da



### Uhandre palmatua

*Lissotriton helveticus*

Euskal Herriko uhandre espezie arruntena da. Ikerketa lanak egiteko egokia



### Uhandre marmolairea

*Triturus marmoratus*

Euskal Herriko uhandre espezie handiena. Herriguneko putzu-urasketan topatu da



### Apo-arrunt iberiarra

*Bufo spinosus*

Negua lozorroan ematen du eta tenperaturak epeltzean ugaltzen da erreka bazterretan



### Baso-igel gorria

*Rana temporaria*

Neguan ikus daitezke espezie honen erruteak basoetako osinetan



### Txantxiku arrunta

*Alytes obstetricans*

Oñatiarrei ezizena ematen die. Oso arrunta da. Gau hezeetan entzuten da bere kantua.



### Zuhaitz igel iberiarra

*Hyla moller*

Soilik ar baten kantua entzun da. Aizkorriko parkean du bere iparraldeko muga espezi honek



### Ur-igel arrunta

*Pelophylax perezi*

Eguzek egoten da aktibo eta orduan entzun daitezke bere kantu ozenak, koraak.



### Zirauna

*Anguis fragilis*

Suge forma duen arren, hankarik ez duen muskerra da. Bareak jaten ditu.



### Musker berdea

*Lacerta bilineata*

Musker espezie arruntena Euskal Herri hezean. Landa-zabaletako ertzak ditu gogoko.



### Schreiber muskerra

*Lacerta schreiberi*

Endemismo iberiar bat da. Espezie mehatxatuen zerrendan dago. Araotzen aurkitu da.



### Gardatxoa

*Timon lepidus*

Aurkikuntza interesgarrietako bat izan da hiru musker motak eremu berean (Araotz) ikustea.



### Sugandilla bizierrulea

*Zootoca vivipara*

Narrastia izan arren, putzu, erreka bazter eta belardi heze inguruetan egoten da.



### Sugandilla arrea

*Podarcis liolepis*

Sugandillen artean eskasena. Arantzazu eta Andartoko harkaiztietan ikus daitezke.



### Horma sugandilla

*Podarcis muralis*

la udalerrri osoan dago. Hormak ditu oso gogoko. Intsektuak jaten ditu.



### Suge gorbataduna

*Natrix astreptophora*

Gaztea denean lepoko txuria agertzen du. Apo, arrain eta igelak jaten ditu.



**Suge biperakara**  
*Natrix maura*

Urpekari bikaina da. Arrainak eta igelak jaten ditu, eguzkiak gogor jotzen duen erreketan



**Iparraldeko suge-leuna**  
*Coronella austriaca*

Herpetofagoa da, hau da, sugandilla eta ziraunak jaten ditu soilik, asfixia bidez hilda.



**Hegoaldeko suge-leuna**  
*Coronella girondica*

Hau ere herpetofagoa da, eta bere harrapakinak bizi diren habitetan ikus daiteke.



**Eskulapio sugea**  
*Zamenis longissimus*

EAEen babestuta dauden lau sugeetako bat. Zuhaitzetan gora igo liteke txitak jateko.



**Sugegorri kantauriarra**  
*Vipera seoanei*

Pozioia duen espezie bakarra. Ez da metro erditik pasatzen. Toki oso eguterak ditu gogoko.

Aranzadi Zientzia Elkarteko **Ion Garin** herpetologoak zuzendu du Oñatiko ikerketa, eta berak eman dizkigu azalpenak. Bereak ez ezik, **Iñaki Sanz-Azkue**, **Alberto Gosá**, **Manu Océn**, **Jose Antonio Galeo** eta **Egoitz Alkorta**renak dira argazkiak.

## IKERKETAREN ONDORIOAK (laburbilduta)



**1.-** Guztira, 8 anfibio espezie eta 13 narrasti espezie topatu dira ikerketa eremuan, Gipuzkoako espezien %75 eta EAEkoen erdia. Argi dago, beraz, Oñati eremu garrantzitsua dela bizidun zaugarri hauen kontserbazioa bermatzeko.

**2.-** Guztira 1.300 aipu inguru bildu dira, eta udalerriko zonalde aberatsenak edo interesgarrienak mugatu ahal izan dira ezaugarri desberdinak kontutan hartuz (espezie kopurua, arrarotasuna, eta zaugarritasuna). Gune batzuk nabarmendu dira beste guztien gainetik: Araotz, Arantzazu, Zubillaga, Gomistegi, Uribarri eta Oñatiko gune hiritarrean dauden urmaelak. Bitxikeria moduan esan liteke, nabarmendu diren eremu gehienak Parke Naturaletik kanpo kokatzen direla.

**3.-** Ikerketaren helburuetako bat EAEko espezie mehatxatuen zerrendan dauden bi espezieen banaketa area ezagutzea zen. Bietako baten presentzia egiaztatu da, **Schreiber** muskerrarena, Araotz auzoan. Gainera, aldi berean beste musker espezie baten presentzia baieztatu da, **Gardatxoa**, Euskal Herrian elkarrekin hiru musker espezieak ikus daitezkeen eremu bakarra izanik. Bestalde ez da **Suge berde horia**-ren presentzia baieztatu. Halere, Nafarroan topatu izanak, espeziearen presentzia oraindik balizkoa izan litekeela pentsarazten digu.

**4.-** Alabita bailaran, **Baso-igel iberiarraren** populazio berri bat topatu da. Gainera burrunzi, sorgin orratz, tximeleta eta landare espezie bereziak topatu dira Araotz, Urbia, Alabita eta Degurixako inguruan. Dirudienez balio biologiko altuko zonalde bat da honako hau, beraz ondo legoke hainbat aditu (bai zoologo zein botanikoekin) bameratzen dituen lantalde bat osatzea ingurunea sakontasun handiarekin aztertu eta bertako harribitxiak azalean uzteko.

**5.-** Alde zientifikotik begiratuta, ikerketa lanaren ekarpen nagusienak bi ondorio nagusi azalean utzi ditu: batetik ingurunearen antropizazio mailak, anfibioen osasun egoeran eragin negatiboa duela ikusi da. Era berean, Parke Naturalaren baitan dauden putzuetan aztertutako anfibioen (**Uhandre palmatuen** arrak eta **Txantxiku arruntaren** zapa-buruek) eta Parke Naturaletatik kanpo bildutako laginen artean ez da deberdintasunik nabaritu, bai espezie kopuruan zein osasun egoeran.

Bezeroen beharrei  
erantzuteko prest!



**GUALBI**  
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6  
Tif.: 943 78 16 48  
email: onati@gualbiasesores.com

[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)



Andres Arlanzon  
eta Jesus Mari  
Arzuaga  
argazki funtsak.  
Oñatiko Udala  
Artxibo Zerbitzua



Argazki funtsa - Oñatiko Udala Artxibo Zerbitzua

# San Migel kooperatiba

"Kontsumo produktuak ahalik eta prezio onenean eskaintzea, bazkideen arteko harreman onak eta erlijio sentimenduak mantentzea, eta hauen bizikaltate maila hobetzea, aurrezkiaren bidez" Helburu horiekin eratu zen San Migel kooperatiba (*Sociedad Cooperativa 'Benéfica San Miguel' de Obreros Católicos de la villa de Oñate*) duela ehun urte, 1918ko azaroaren 20an.

Sei gizonekok (Balbino Lizarralde, Jose Víctor Balzategi, Leandro Ortiz de Zarate, Jose Ignacio Biain, Angel Arrazola eta Bernabe Mugarza) sortu zuten kooperatiba, orduko agiritan ikus daitekeen moduan, eta R. M. Zuazola kaleko 8an izan zuen egoitza.

Herriko langile guztiari luzatu zitzaizkien bazkide izateko aukera, eta bi bazkide mota bereizi ziren: akziodunak eta kontsumitzaileak. Akziodunek sei hilabetez bakoitzeko gutxienez 100 pezeta erosteko obligazioa zeukaten, eta aukera zuten erosketen portzentai bat hil bukaeran ordaintzeko. Ehun urteko ibilbidean 2.000tik gora bazkide izan ditu. Gaur egun ere, bazkide erabiltzaileek 30 €-ko kuota ordaintzen dute eta trukean %3ko deskontua jasotzen dute.

Kale Zaharreko 29an ireki zuen aurreneko denda, eta 60ko hamarkadatik aurrera Kale Barriar dago. 1977an egin zuen azkenengo handitzea, *Txariduna* ostalua izandako lokala erosi ostean.

Janari, edari eta garbitasuneko produktuez gain, sukaldeko tresneria, mertzeria eta perfumeriako produktuak ere saldu izan ditu etapa ezberdinetan. Baina zerbaitegatik nabarmendu bada, kalitatezko produktu freskoa eta bertakoa saltzeagatik izan da.

Garai zailak bizi dituztela aitortu digute. Kale Barria eta Kale Zaharra autoentzat itxi izanak kalte handia egin die. Baina, hala ere, 100. urtebetetzea ospatu egin nahi dute oparitxo bat eginez bazkideei, eta beste hainbat opari zozketatuz bezero guztien artean.



Andrés Arlanzón argazki funtsa - Oñatiko Udala Artxibo Zerbitzua

## gizaldi oso bat herritarren zerbitzura

100 urte beteko ditu San Migel kooperatibak azaroaren 20an





# EUSKARALDIA

600dik gora lagunek eman dute jada izena Oñatin, azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo den Euskaraldian parte hartzeko. Eguneroko inertiak aldatuz, euskararen **erabilera indartzea** da helburua



Udalbatzak ahobatez babestu du Euskaraldia



Herrixa kantuan ekimeneko lagunek ere bat egin dute Euskaraldiarekin



**Animatu eta izan zaitetz ahobizi edo belarriprest**



## Zer da Euskaraldia?

- Hizkuntza ohiturak astindu eta eguneroko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko ariketa.
- 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugun guztion artean egin dezagun euskaraz.

## Nola egingo dugu?

- Ondoko bi roletako bat har dezagun 11 egunez:  
**AHOBIZI:** Ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark euskaraz nahiz erdaraz erantzun. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet.

- **BELARRIPREST:** Egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.

## Nork parte har dezake?

- 16 urtetik gorako herritarrek. **Ahobizi** izateko, euskaraz hitz egiten jakin behar da. **Belarriprest** izateko, euskara ulertu egin behar da, gutxienez.


## Non egingo dugu?

- Bakoitzak bere inguruan, bere ohiko harreman sareetan: familian, lagunartean, lanean, eskolan, dendetan...

## Zer lortu nahi da?

- Gure harremanetan hizkuntzarekin ditugun inertiak astintzea eta uste baino gehiagotan euskarazko komunikazioa posible dela frogatzea.
- Euskara ulertzen duen jendea pentsatzen duguna baino gehiago dela jabetzea eta euskara gehiagotan erabil dezakegula ikustea.
- Hizkuntza ohiturak aldatzea norberaren hautua eta ariketa izan arren, bidea taldean eta batera, erosoago eta lagunduago egitea.
- Euskara erabiltzeko testuinguru eta egoera berriak, abegikorragoak eta babestuagoak sortzea.

Izena emateko bi aukera: online ([www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)) edo udaletxean, kultur etxean eta ikastetxeetan dauden eskuorriak betez.



# LKSk idatziko du kiroldegia handitu eta berritzeko proiektua

Igerilekuen  
kokapena eta  
orientazioa ere  
aldatu egingo da

**Aurreproiektuaren arabera, 5 milioi pasatxoko aurrekontua izango dute obrek**

Zubikoa kiroldegia handitu eta berritzeko prozesuan aurreneko erabaki inportantea hartu du udalak, LKSri esleitu baitio behin betiko proiektuaren idazketa 240.000€-tan (+BEZ). Urte amaierarako prest egongo da proiektua, eta udal arduradunen nahia da 2019ko uda partean ekitea obrei. LKSk aurkeztutako aurreproiektuaren arabera, lanek 5.024.778 €ko aurrekontua dute. Hona ezaugarri nagusiak.

## 9 KALEKO IGERILEKUA

Igerileku handiak 9 kale izango ditu, eta igerileku txikiaren azalera ere handitu egingo da 12,5x6 metrotik 16x8 metrora. Horretarako eraikin berri bat erantsiko zaio kiroldegiari belardi aldera, irudietan ikusten den moduan.

Igerilekuek kokapena eta orientazioa ere aldatu egingo da; igerileku txikia hegoaldeko fatxadara ekarriko da, eta igerileku handiaren parean ehun bat lagunentzako harmailak egokituko dira. Bai putzu handian eta baita txikian sartzeko ere arripala bat egokituko da, irisgarritasuna bermatzeko.

Berdegunean haurrentzako ur-jolasen gunea egokituko da, eta igerileku txikia hartuko duen anexoaren gainaldean solariuma egokituko da, berdeguneari kendutako espazioa konpentsatzeko.

Igerilekuetarako aldagelak ere lehen solairuan egokituko dira, eta sauna gunea ere hegoaldeko fatxadara kokatuko da, sarrera propioarekin.

## FITNESS GUNEA ETA ROKODROMOA

Fitness jardueretarako gunek beheko solairuan batuko dira, gaur egun gimnasioa dagoen lekuan, eta igerileku txikiaren azpian sortuko den espazio berria aprobetxatuz. Gimnasioaren azalera handitu egingo da, eta, gainera, ekintza gidatuetarako (aerobik, pilates...) hiru gela eta tatami bat egokituko dira. Rokodromoak bere gunea propioa izango du, gimnasioaren

ondoan, baina aparte, eta squash bat kenduko da, boulder gunea egokituko. Fitness gunek bere aldagela eta bainu propioak izango ditu.

## PADEL PISTAK ETA PILOTALEKUA

Padel-ean aritzeko bi pista egokituko dira, gaur egun estali gabe dagoen tenis pistaren lekuan. Gune honetan lurzorua koto jaitsi egingo da estalitako tenis pistaren mailaraino. Horrela, tenis pistako estalkia luzatu eta padel pistak estaliko dira eta, bide batez, pilotalekuko ezker hormari egiten dion presioa arindu nahi da. Bigarren tenis pista, estali gabea, kantxa urdinaren atzealdean egokituko da.



Eraikin berria erantsiko zaio kiroldegiari belardi aldera

## PILOTALEKUA ETA KANTXA BERDEA

Pilotalekuko zorua berritu egingo da eta, gainera, ate berri bana egokituko dira erreboteko eta frontiseko hormetan, harmailen parean, eta horri esker aforoa edo edukiera handitu ahal izango da. Bestalde, Kantxa berdeko zorua ere berritu egingo da, eta gunea honetako aldagela guztiak ere goitik behera berrituko dituzte, eta baita squash-eko bi kantxak ere.

Kiroldegiko sarrerako gunea ere guztiz berrituko da, eta kanpoaldean markesina edo aterpe bat egokituko da.

## ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA

Gainerakoan, kiroldegi zaharreko egitura osoa berrituko da (teilatua, isolamendua, ur hoditeria...). Funtzionaltasuna hobetzeaz gain, eraginkortasun energetiko handiko ekipamendua egokitu nahi da.

## EPEAK

Urte amaierarako egongo da idatzita behin betiko proiektua, eta udalaren nahia da uda parterako hastea obrak. 2020ko urte amaierarako bukatuta egon behar dira lanak.

# KATILU SOLIDARIOAK

- ⇒ Grezian bizi diren haur errefuxiatuen marrazkiekin apaindutako katilluak salduko ditu Hotz Oñatik
- ⇒ Salmentarekin ateratzen duten dirua bi elkartasun proiektutara bideratuko dute

**KATILU SOLIDARIOAK** izeneko elkartasun ekimen berria jarri du abian Hotz-Oñati taldeak. Asturiaseko Arriondas herrian du jatorria ekimenak Bertako institutu bateko ikasleek ipuinak idatzi zizkieten Atenas hiriko harrera zentroetan zeuden haur errefuxiatuei, hauek marrazkiak egin zituzten ipuinak ilustratzeko. Marrazki horiekin katilu zoragarriak egin zituzten, eta saldutako katiluen bidez Atenaseko adiskide berriei laguntzeko dirua bildu zuten.

Ekimen hori zabalduz joan da beste herri batzuetara, eta horixe da, hain zuzen, Hotz taldeak Oñatin martxan jarriko duena. Zeramista bolondres batek egindako katilluak jarriko ditu salgai 10 €-tan, Greziako haur errefuxiatuen marrazkiekin apaindutakoak. Arima eta sentsibilitate berezia islatzen du katilu bakoitzak.

Salmentatik ateratako dirua bi proiektutara bideratuko dute: Donostiako Salvamento Marítimo Humanitarioren 'Maydaymediterraneo' egitasmora, Mediterraneo itsasoan errefuxiatuei laguntzen jarrai dezaten; eta SOS Refugiados taldeak Atenasko Victoria Social Center harrera zentrorira iristen diren errefuxiatuei laguntzeko daukan proiektura.



Ana Mendizabal eta Edurne Bikuña, Hotz-Oñatiko kideak



## Nola eskuratu katilluak

- Hotz-Oñatik hileko bigarren larunbatetan plazan jartzen duen postuan, eta abenduaren 15ean plazan egingo den elkartasun azokan.
- Herriko lantegi, ikastetxe eta zerbitzu publiko ezberdinetan jarriko diren eskaera orrietan izena emanda.
- Txokolateixa dendan



## PROMOZIO BERRIA!

### 30 etxebizitza

(2-3-4 logeekin)

San Martin gunean

Informazioa: 689 420 761

egaralur  
Construcciones | Eraikuntza Lanak

\* A5 etxebizitzari dagokion infografia

## AZAROAK 25

## EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA

Emakumeok hiltzen, erailtzen jarraitzen gaituzte, emakumeak izateagatik. Noiz arte?

Jada ez gara ixiltzen, jakin emakumeenganako indarkeria matxista hau, sistemikoa dela eta, ez dena kasualitatez gertatzen, ez dago konpromiso politikorik biolentzia honekin amaitzeko eta agintariek, politikariek, gizarteak, herriak... Gutako bakoitzak. Noiz arte jarraitu konplize izaten?

Ez dugu etsiko ordea, eraildako emakume bakoitzetik hamaika altxatuko gara eta indarrez beterik, kalera irtengo gara salatzera eta aldarrikatzera, "aski da!"

Emakumeok saretu egingo gara, milaka gara kalera irtengo garenok, olatu more bat sortuko dugunok.

Horregatik azaroaren 25ean hasitakoa egunero joango gara eraikitzen, gelditu gabe, gure helburuak betetzen. Bideak martxoaren 8ra eramango gaitu, indartsu, adoretzu. Egun horretan, 2019ko martxoaren 8an, 24 orduko grebarekin patriarkatuari aurre egingo diogu.

Amesten dugun E.H. feminista eraikiko dugu! Gora Borroka Feminista!

Andraitz Feminista taldea



Jone  
Arriolabengoa  
Udaleko  
Berdintasun  
teknikaria

## Oñati feminismitik marrazten jarrai dezagun!

Indarkeria matxista askotariko adierazpenen bidez ageri da, mundu osoan indarrean dagoen sistema baten parte da, eta emakume guztiok jasaten dugu gure bizitzako unerren batean. Honen aurrean, gure erantzukizuna da bestelako gizarte bat eratzeko urratsak ematea. Askatasunean eta parekidetasunean oinarritutako etorkizun bat behar dugu, eta denok dugu zer egina norabide horretan, bakoitzak bere esparrutik.

Azaroaren 25a Emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna dugunez gero, Oñatiko udalak, Andraitz talde feministak eta Pototak talde feministak egitarau zabala eratu dugu. Indarkeria matxistaren espresio modu guztiak ikustarazi, hauen aurkako jarrera irmoa erakutsi, eta emakumeok hauei aurre egiteko ditugun estrategia individual eta kolektiboetan sakontzea da egitarau honetan jasotako ekintza ezberdinen helburua.

Hala, Oñatiko herritarrek animatzen ditugu antolatutako ekintzetan parte hartzera, guztion artean Oñati feminismitik marrazten jarrai dezagun!

## Egitaraua

## INDARKERIA MATXISTAREN AURKA, elkarEKIN!

## ● AZAROAK 21, ASTEAZKENA

**Hitzaldia:** Emakumeak eta pentsio sistemak. Ezkutatutako errealitatea. Arantxa Corrales Gutierrez, emakume pentsiodunen mugimenduko kidea. **Udaletxeko pleno aretoan, 18:30**

## ● AZAROAK 22, OSTEGUNA

**Dokumentala eta solasaldia:** 'Bideak gurutzatzen' dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia. IMME (Emakume Musulmanen Gizarteratzea Euskadin) elkarteak. **Udaletxeko pleno aretoan, 18:30**

## ● AZAROAK 22, OSTEGUNA

**Zine-Kluba:** Xavier Legrand-en 'Custodia compartida' (Frantzia, 2018) Dibortziatutako bikote batek semearen zaintzaren harira dituen liskar eta tirabirek muturreko egoerara eramango dute semea. **Kultur etxean, 20:00**

## ● AZAROAK 24, LARUNBATA

**EGUN MOREA:** Pototak asanblada feministak antolatuta. Egun osoko egitaraua egongo da: tailerrak, bazkaria, antzerkia, kontzertuak... Aldarrikapen feministaz beteriko eguna.

## ● AZAROAK 25, IGANDEA

**Elkarretaratzea:** Emakumeen aurkako erasoak saltzeko elkarretaratzea. **Foruen plazan, 13:00**

## ● AZAROAK 28, ASTEAZKENA

**Bilera:** Batu erlauntzara! berdintasunerantz...Guriaz nok guk baino hobeto. **Udaletxeko pleno aretoan, 18:30**



Urte amaierako kanpaina

Bizitza-erloko  
aseguruetan

%20 ko deskontua

Mikel Egaña Urrutia  
Aseguruak

- ✚ Heriotza (seguro)
- ✚ Bizitza (bidai)
- ✚ Osasuna (salud)

Mobxon 5. behea  
638 16 79 84

mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

Almaraz  
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444  
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

## 'ELTZIARI ERAGITEN'

jardunaldiak egingo dira

azaroaren 16 eta 17an



## Eltzia eraikina eta bertan diharduten herriko 25 taldeen lana bertatik bertara ikusteko aukera egongo da

Udalaren eta herriko hainbat eragileren arteko lankidetzaren ondorioz sortutako Eltzia egitasmoak bost urteko ibilbidea egin du jada, eta une egokia dela pentsatu dute, Eltzia bezalako beste esperientzia batzuk eza-gutu eta Eltzia eraikina eta bertako dinamika herri osoari erakusteko. Helburu horrekin egingo dira 'Eltziari eragiten' jardunaldiak azaroaren 16 eta 17an.

### ESPERIENTZIAK PARTEKATU

Lehenengo egunean Eltzia bezalako beste proiektu batzuk ezagutzeko aukera egongo da, esperientziak ezagutu, jakintzak elkarbanatu, zalantzak eta ideiak partekatu eta sinergia berriak sortzeko asmoz.

Goiz partean lan-tailerra egingo da tokiko administrazioetako politikari eta teknikariek, espazio publikoen kudeaketarako formula

berrien gainean.

Arratsaldean berriz, Eltziaren antzeko beste esperientzia bazuk (Getxo, Iruñea, Zaragoza eta Bartzelona) ezagutzeko aukera egongo da. Herritar guztiei irekia.



### ELTZIA EGUNA

Bigarren egunean Eltziako atek parez pare irekiko dira, eraikina bera eta bertan diharduten herriko 25 taldeen lana ezagutzera emateko. Eltzekideek gidatutako bisita egingo da.

Bestetik, modu paraleloan, Eltziako erabilitzaileek barnera begirako hausnarketa egingo dute, gaur egun hutsik dagoen Topagunea espazioak izan beharko lukeen funtzioa eta itxurari buruzko gogoeta egiteko.

Goizeko ekintzen ostean, trikipoteoa eta bazkaria eongo da.



### EGITARAUA

#### AZAROAK 16, OSTRALA

**Goizean.** Lan tailerra tokiko administrazioetako politikari eta teknikariek, espazio publikoen kudeaketarako formula berrien inguruan.

**Arratsaldean.** Eltzia bezalako beste proiektu batzuk ezagutzeko aukera:

- Getxo** (Bentara noa)
- Iruñea** (Plazara)
- Zaragoza** (Centro Buñuel)
- Bartzelona** (Can Batlló)

#### AZAROAK 17, ZAPATUA

#### 'ELTZIA EGUNA'

**Ate irekiak.** Eltzia eraikina eta bertan diharduten herriko taldeen lana bertatik bertara ezagutzeko aukera. Eltzekideek gidatutako bisita.

**Lanketa.** Eltzian gaur egun hutsik dagoen Topagunea espazioak izan beharko lukeen funtzioa eta itxuraren inguruko lanketa egingo dute eltzekideek.

**Trikipoteoa, bazkaria** eta bazkaloste girotua



## Eltzia egitasmoa



### BIDEOA

Eltzia zer den laburbiltzen duen bideoa duzu QRan



**EGUR-LAN**  
AROSZTEGIA  
LIMABAR S.A.L.  
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com  
www.egur-lan.es

**smk**  
san miguel kooperatiba  
943 781 217  
kale barria 8 - 20560 oñati  
www.sanmiguel.coop



## OÑATIKO KALE GARBIKETA ZERBITZUA PUBLIFIKATU ZELA 2 URTE

Gobernu taldeak balorazioa egin du, ekonomikoa eta zerbitzu-kalitatearena

**O**ñatiko Udalak kale garbiketa zerbitzua publikatu zuela 2 urte igaro direnean, Udal Gobernu Taldeak harturiko erabakiaren balorazio bat egin du. Mikel Biain, alkatearen hitzetan, alde batetik balorazioa ekonomikoa dago eta bestetik zerbitzu- kalitatearen balorazioa.

Balorazio ekonomikoari dagokionean, 2018ko maiatzean Udal Kontuhartzaileak txosten ekonomikoa egin zuen. Ondorioak honoak dira:

- Alderaketa *homogeneo* bat eginez gero, hau da, FCCk zerbitzurako erabiltzen zituen makina eta pertsona kopuru bera (8 langile+barredora 1) egungo kudeaketa zuzeneko eredura ekarrita, 402.627,85 EUR litzateke Udalaren kostua. FCCren urteko kostua 567.311,67 EURtakoa zen. Ondorioa argia da: **Baliabide kopuru berdina alderatuta kudeaketa zuzenean %30a jeitsi da urteko kostua.**

Baina Udal Gobernutik argi utzi nahi da erabaki hau ez zela irizpide ekonomikoetan oinarrituta bakarrik hartu; zerbitzuaren kalitatea eta kontrola hobetzeko asmoz baizik. “Horregatik, zerbitzu berria diseinatzerakoan, baliabide gehiago eta prozedura berriak ezarri ziren. Honek ekarri du zerbitzuaren kalitatea nabarmen hobetzea. Sortu den lantaldeko pertsonak eta antolakuntza berria dira hobekuntzaren gako nagusiak” adierazi du du alkateak.

Gaur eguneko zerbitzu berriak modu iraunkorrean 11 langile, 2 barredora, kamioia eta presiozko garbiketa tresneria berria ditu. “Langile gehiago eta makinaria gehiago jarrita, oraindik ere FCCren kostua baino baxuagoa da egungo kudeaketa zuzenarena. Hau da, 561.682,63 EUR VS. 567.311,67 EUR” azaldu du Biainek.

Nolanahi ere, ezin aipatu gabe utzi, pribatizaturiko zerbitzu

<b>KALE GARBIKETA</b> <i>FCCren kontratua Vs Zerbitzu publikoa</i>	
Kostu ekonomikoen alderaketa homogeneoa	
EREDUAK	KOSTUA UDALARENTZAT
<b>FCCren zerbitzua</b> 8 langile + barredora mekaniko 1	<b>567.311,67 €</b>
Gaur eguneko <b>zerbitzu publikoa</b> 8 langile + barredora mekaniko 1 (hipotesia)	<b>402.627,85 €</b>
<b>Urteko aurrezpena</b> (baliabideak homogeneizatuta)	<b>164.683,82 €</b>
Aurrezpena %-tan	<b>% 29,02</b>

bat publiko bihurtzea oso lan konplikatu dela batez ere pertsonal arloari dagokionean. Oñatiko kasuan, lan eskaintza publikoa egin zen, langile ordezkariekin lehiaketa oinarriak adostuz. Lehiaketa horretan langile berriak sartu ziren eta FCCko langile ziren batzuk kanpoan geratu ziren lehiaketa ez zutelako gauditu. Langile hauen kalteordainetan 224.599 EUR ordaindu zituen Udalak .

“Erabakia modu zuzenean baloratu ahal izateko baliabideen alderaketa homogeneoa egin beharren gaude. Hau da, Udalak zerbitzua publikatu eta FCCren baliabide berdinekin jarraitzea erabaki izan balu, urtean 164.683 EUR aurreztuko litzuzke zerbitzuaren kostuan. Hau da, urte eta 4 hilabetean kalteordainen efektu ekonomikoa iada amortizatua geratuko litzateke” adierazi du alkateak.

«Zuzeneko kudeaketa, eraginkorragoa eta ekonomikoagoa dela egiaztatu da. Sortu den lantaldeko pertsonak eta antolakuntza berria dira hobekuntzaren gako nagusiak»

**MIKEL BIAIN**  
ALKATEA

Udal gobernuak argi ikusten du oinarri-oinarrizkoak diren zerbitzu publikoak modu zuzenean eta publikoan eskaintzeko ahalegin berezia egin beharko litzatekeela. "Mingarria suertatzen da Udal batek antolatutako zerbitzuak enpresa pribatuen esku uztea eta kasu askotan gertatu izan denez erakunde publiko bat beraien irabazi asmo eta lukurreraren menpe geratzea" esan du Biainek.

Kale garbiketa zerbitzuaz gain, beste hainbat udal zerbitzu ere aipa daitezke, alkateak gogorazi duenez. "Esaterako, zerbitzu eta igeltsaritza brigadak. Ikusi besterik ez dago azken urteetan ze neurritan hobetu den zerbitzu hauen kalitatea". "Arduradun publikoak garen heinean gure ardura da herri baliabideak ahalik eta modu zuzenean kudeatuz zerbitzu publikorik egokiena eskaintzea. Horixe da hain zuzen Udal Gobernu honen iparra" gaineratu du.



↓

**Eskatu hitzordua**

Udaletxeko sarreran dago bulegoa, sartu eta ezkerretara. Maider Barrena oñatiarra da bertako arduraduna. Astelehenetik ostiralera dago zabalik (17:00-20:00). Aurrez txanda eskatzea komeni da, telefonoz (943780411) edo emailaz ([adinekoaketafamilia@gmail.com](mailto:adinekoaketafamilia@gmail.com)).

## Adinekoak eta familiak

Pertsona nagusientzat dauden baliabide eta laguntzei buruzko informazioa eta orientazioa emateko bulegoa ireki du udalak

### **NORI DAGO ZUZENDUTA ZERBITZUA?**

Herritar guztiei zuzendutako zerbitzua da; batez ere 60 urtetik gorakoei. Doako zerbitzua da.

### **ZEIN DA ZERBITZUAREN HELBURUA?**

Adineko pertsonentzat eta menpeko-tasunen bat duten pertsonentzat udalak eta foru aldundiak eskaintzen dituzten zerbitzu eta baliabideen berri ematea.

Menpekotasun edo dependentzia egoerara iritsi aurretik, herritarrek ezagutza eta informazioa edukitzea dauden baliabide eta laguntzen inguruan. Azken batean, adineko pertsonen eta hauen zaintzaz arduratzen diren senideen bizi-kalitatea hobetzeko dauden aukerak ezagutzera ematea, eta zahartze osasuntsua sustatzea.

### **ZEIN LAGUNTZA MOTARI BURUZ ARI GARA?**

Era askotako laguntza eta baliabideak daude, adibidez:

-Telelaguntza zerbitzua, bakarrik bizi diren adineko pertsonen laguntza kasuetan erabili

ahal dutena, beraien eta senideen segurtasunerako.

-Etxe-etxeko laguntza zerbitzua: etxea garbitzeko, otorduak prestatzeko, arropak litzateke, erosketak egiteko...

-Su eta ke detektagailuak, sute arriskua prebenitzeko.

-Laguntza teknikoak (gurpil aulkiak, ohe artikulatuak, etxebizitzan eta bainugelaren egokitzapenak egiteko laguntzak...)

-Zaintza lanetarako dauden prestazio ekonomikoak.

-Egoitza eta Eguneko Zentroari buruzko informazioa.

-Aldi baterako zentro sozio-sanitarioan sartzeko aukera.

-Sendian programa (laguntza psikologikoa, asteburuko lasaialdia...)

-Eta beste hainbat zerbitzu.

### **TRAMITEAK EGITEN ERE LAGUNTZEN DUZUE?**

Baliabide ezberdinak lortzeko zein baldintza bete behar diren, eta eskaerak nola eta non egin behar diren azaltzen da bulegoan.

**ARANBURU  
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK**

**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**

*Aran Hernandez*

Zure ETXEA eguneratu gubonoko inbertsio bat erabiliz bere salmenta edota alokairua ematzeko

**626 114 382**  
[aranhernandez@aranhernandez.com](mailto:aranhernandez@aranhernandez.com)

## 'Bertakoak' aparkatzeko txartela eskatzeko edo ezeztatzeko epea azaroaren 13an amaituko da

2019 urtera begira 'BERTAKOAK' aparkatzeko txartela eskatu edo ezeztatu nahi duenak, azaroaren 13a baino lehen egin behar du udaltxean, dagokion eskaera orria betez. Oñatiko Araututako Aparkalekuen Ordenantzak jasotzen duen moduan, inguruko bizilagunentzat gordetako bi guneeetan (Bidebarrieta eta Aita Madina/Aita Mortara kaleetan) aparkatzeko txartela duten biztanleen zerrenda argitaratu du udalak iragarki taulan eta webgunean, eta hilaren 13ra arteko epea ireki du altak eta bajak tramitzatzeko. Epe hori bukatuta, 2019 urterako behin betiko zerrenda osatuko da, eta hortik aurrera ez da aldaketarik onartuko hurrengo urtera arte.



Aita Mortara kalekoa da Bertako bizilagunentzat gordetako guneeetako bat



## Agintaldia amaitu arteko egitasmoak

2015-2019 agintaldiko azken txanpan sartu garen honetan, esku artean dituen proiektuen berri eman ditu udal gobernu taldeak komunikabideen aurrean.

Arloz arlo, azken hiru urteetan egin-dakoak gogoratzeaz gain, datozen hilabeteetan abian jarriko dituzten egitasmoak aurreratu zituzten.

Baina egindako edo egingo dituzten gauzez gain, egiteko moduz ere azpimarratu zuen Mikel Biain alkateak. "Zintotasunez jokatu dugu, herritarrengandik hurrean egonda, eta kudeaketa zuhurra eginez. Inbertsio guztiak berme batekin egin ditugu, oreka finantzarioa zainduz, eta horri esker udalaren zor bizia jaitsi dugu 6 milioitik (2011) 900 mila eurora. Horrek aukera emango digu datozen urteetan egin beharreko inbertsio potoloiei (kiroldegia, Olaiturri...) aurre egiteko".

Zerbitzu publikoak sendotzearen alde egindako apustua ere azpimarratu zuen alkateak. "Oinarrizko zerbitzuetan (kale garbiketa...) kudeaketa zuzenaren alde egin dugu. Udaleko lantaldea 87 langile zeuden duela hamar urte, eta egun 107".

### Egitasmo nagusiak

- ➔ **Etxaluzeko** plaza berritzeko lanak bi aste barru hasiko dira.
- ➔ Errekalde eskolako **sotoa** berritzeko lanak aste honetan amaituko dira.
- ➔ **Olaiturri** gunea estaltzeko lanak urtarilean esleituko dira.
- ➔ **HAZ** Herritarrentzako Arreta Zerbitzu berria apirilera martxan jarriko da udaltxeko sarreran.
- ➔ **Kiroldegia** berritzeko lanak apirilean esleituko dira, eta lehenbailehen hasiko dira obrak.
- ➔ Kultur ekitaldietarako sarreraren **aurre-salmentar**ako makina bat jarriko da udalzaingoaren aldamenean.
- ➔ Alokabide-rekin hitzarmena sinatuko da etxebizitzien **alokairua** sustatzeko.
- ➔ **Bizikletak** garbitzeko gunea egokituko da plazako azoka ondoan.
- ➔ **Semaforoa** ipiniko da Txaketuako bidegurutzeko trafikoa erregulatzeko.
- ➔ **Gaztelekua**ren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldiak antolatuko dira 2019an

## Udal zerga eta tasak berdin mantenduko dira 2019an

EH Bilduren aldeko botoz eta EAJren abstentziaz onartu ditu udalbatzak 2019ko ordenantza fiskalak. Irizpide orokorra zerga ordenantza bere horretan mantentzea izan da, igoerarik gabe.

Baina badira aldaketa batzuk, besteak beste, eraikuntza eta obren gaineko zergetan hobari berriak aplikatzea onartu baita. Hala, negozio txikietan egiten diren obra eta berritze lanek %75eko hobaria izango dute; EITak behartuta egin beharreko obrak %95eko hobaria; fatxada osoa berritzen duten herrigune historikoko eraikinek %75ekoa izango dute, eta zarata larregi dagoen guneeetan leihoak aldatzeko obrek %25eko hobaria izango dute.

### EAJren ABSTENTZIOA

EAJ abstenitu egin zen bozketan. Gobernu taldeak onartu dituen hobarietako asko alderdi jeltzaleak proposatutakoak direla azaldu zuen Lourdes Idoiak bozeramaleak.

Hala ere, EAJk egindako beste bi proposamen ez ziren onartu: batetik, kiroldegiko familia bonuaren kasuan bazkide-sariei ezarritako tasak murrizteko seme-alaben adina 21 urtetik 23ra jaitea; eta, bestetik, banda marroi/gorria gaitzak jota dauden pinudien kasuan, landa-lurrei ezartzen zaien kontribuzioa ordaintzetik salbu egotea proposatzen zuen EAJk. Hala arrazoitu zuten jeltzaleek beraien abstentzioa.



## MINDFULNES ETA ERLAXAZIOA

Emozioak kudeatzen ikasteko doako tailerra eskainiko du **Iturrigorri Elkarlan** elkarteak

Leuzemiaren aurka eta hezur-muinaren donazioen alde lan egiten duen Iturrigorri Elkarlan elkarteak emozioak kudeatzen ikasteko tailerrak eskainiko ditu Oñatin.



Tailerraren helburu da, gure baitan gertatzen diren aldaketei (emozioak, pentsamenduak, sentipenak...) kontzientziatuz eta lasaitasunez aurre egin ahal izateko trebetasunak lantzea, oreka emozionala eta barne patxada lortzea, eta izaera nahiz jokabide positiboagoak indartzea. Azken batean, bizi-kalitatea hobetzea, eta konfiantzazko gune bat sortzea, bizipenak partekatzeke.

### EGUNAK:

Azaroak 14 (18:00-20:00)

Azaroak 21 (18:00-20:00)

Azaroak 28 (18:00-20:00)

### LEKUA:

Euskaldun Berria gela-Bidebarrieta, 18

### INFORMAZIOA:

687 752 842 (Maribel)

maribelpacheco@gmail.com

## Arartekoaren gomendioa jaso du udalak

Herritar batek egindako salaketa aztertu ondoren, Arartekoak gomendatu dio Oñatiko udalari berma dezala oinezkoen segurtasuna Berezaoko industrialderako bidean. Herritarrak behin baino gehiagotan salatu duenez, inguru horretan ez dago espaloia jarraiturik pertsonak oinez joan ahal izateko, galtzadatik igarotzen diren kamioi eta orgek harrapatzeke arriskurik izan gabe. Gainera, espaloia dagoen zatietan ibilgailuak egoten omen dira aparkatuta.

Udal arduradunek azaldu digute, Zahor enpresa eta Berezaoko parkearen artean bidegorria egokitzeko proiektua daukala eta, oraingoz, Berezaoko industrialdeko sarrerako espaloia berritu duela, Gipuzkoako Urak enpresak bertan egin dituen lanak aprobetxatuz.

## Neguko arropak eskatu ditu Hermansoloñak

Negura begira, txamarra, oinetako, lozaku eta polarren beharrean daudela jakinarazi du Hermansoloña GKEak. Azkenaldian arropa asko bidali dituzte Bilboko Karmela elkartera eta CEAREN Oñatiko harrera zentrora, eta, ondorioz, nabarmen jaitsi zaie stock-a. Horregatik, ahal duten neurrian laguntzeko eskatu diete herritarrei, neguko arropak emanaz. Toalla handiak, patineteak eta baloiak ere jasoko lituzkete. Astegunetan (18:00-19:30) dago zabalik Hermansoloñaren lokala Kale Zaharreko 52an.

## Javier Zuluetak ehun urte bete ditu

Hainbat urtetan herriko dentista bakarra izan zen Javier Zuluetak ehun urte bete zituen urriaren 14an. Jaio zen etxe berean, Kale Zaharreko Zulueta etxean bizi da Javier, eta kalera irteten ez bada ere, buruz ondo dago. Irakurtzea gustatzen zaio eta solaskide bikaina da. Mikel Biain alkateak eta Susana Altuna gizarte zerbitzuetako buruak oroigarria eman zioten herritar guzien izenean.



## 'Creciendo con arte' taldearen ekimenak azarorako

BiziPoz programatik sortutako 'Creciendo con arte' ekimenak hainbat ekitaldi antolatuko ditu azarorako: **azaroak 7** Emakume zirkulua (ilargi berria); **azaroak 8** sendabelarren tailerra; **azaroak 11** Atari energetiko boteretsua; **azaroak 23** Ilargi beteko meditazioa; **azaroak 24** 'El arte de ser' (meditazioa pinturaren bidez). Harremanetarako: 697761569 / 628212839 / [creciendoconarte11@gmail.com](mailto:creciendoconarte11@gmail.com)



## Udal hauteskudeei begira herritarren proposamenak jasotzeko bideak zabaltu ditu EAjk

2019ko udal hauteskudeei begira herritarren proposamenak jasotzeko bide ezberdinak zabaltu ditu Oñatiko EAjk: batzokiko buzoia, helbide elektronikoa ([pnvonati.partaidetza@gmail.com](mailto:pnvonati.partaidetza@gmail.com)) eta sare sozialak (<https://twitter.com/eajpnvonati> / [www.facebook.com/eajpnvonati](http://www.facebook.com/eajpnvonati)). Horrez gain, proposamenak EAJ-PNVren udal taldeko zinegotziei aurrez aurre aurkezteko aukera ere badago, jakina. Modu batera edo bestera, azaroaren 15a baino lehen egin behar dira ekarpenak. EAjk konpromiso irmoa hartzen du 2019ko aurrekontuetan zein urtean zeharreko lan batzordeetan proposamen horiek defendatzeko.





# Berdura PLAZIA

larunbatero (7:00-14:00)

## HILE HONETAKO PRODUKTU AIPAGARRIAK



### **KALEa**

Modan dagoen aza mota da Kalea, bere onurei esker. Bitamina asko eta kaloria gutxi ditu. Zukuan, entsaladan edo egosita jaten da.

**1,5€** SORTA



### **BABIA**

Eguraldia hoztu zaigun honetan, gustura jateko moduko babia ikusi dugu azokan, gorria nahiz beltza, herrian bertan ekoizitakoa.

**12€** KILOA

*Zenbat eta hurragokoa orduan eta gozoagoa*

## Bertako ekoizleen eta produktuen alde

**BERDURA PLAZIA** izeneko atal berria estreinatzen dugu hil honetan. Larunbatero berdura plazan egiten den azokaren inguruko informazioa bilduko dugu bertan: ekoizleak, garaian garaiko produktuak, eskaintza eta ekimen bereziak...

Azoka sustatzeko asmoz, udalak eta ekoizleak abian jarri duten ekimenarekin bat egiten dugu modu honetan.

Izan ere, udalak eta berdura plazan saltzen duten ekoizleak elkarlan dinamika bat sortu dute, larunbatetako azoka biziberritzeko asmoz.

Urtarrilean hasi ziren aurreneko bilerak egiten. Hasierako asmoa, bertako ekoizleak azokaren inguruan zeuzkaten kezka jaso eta hauei erantzuna ematea zen, baina elkarlanerako gogoia ikusita, ideia ezberdinak lantzen hasi ziren azoka sustatu eta biziberritzeko helburuarekin.



### **ZOKKETAK, OPARIAK, KULTUR EKIMENAK...**

Azokarentzako logo edo irudi berria sortzea izan da aurreneko ekimena, eta gehiago ere izango dira datozen aste eta hilabeteetan. Herri Egunean 'Berdura Plazia' ren irudia duten poltsa eramangarriak banatu ziren, eta hurrengo asteetan azokan bertan ere banatuko dira bezeroen artean.

Erabili behar ez direnean, bere baitan bildu eta poltsikoan eramateko modukoak dira, eta dirua edo giltzak eramateko zorrotxo bat ere badute.

Horrez gain, tarteka, bezeroen artean opari bereziak zozkatzeko asmoa ere badute azokako saltzailerek, eta udalarekin batera kultur ekimenak (kontzertuak...) antolatzeke asmoa ere badute. Azken batean, herritarrak (batez ere belaunaldi berriak) azokara erakartzea, eta bertako produktu freskoen kontsumoa sustatzea da helburua, lehen sektoreari bultzadaxo bat emanez.



Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi duzu?

Tel.: 943 71 61 60  
Mug.: 610 381 244  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net)  
Etxian 



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)

Gure beharra baduzu,  
ondo-ondoan gaituzu.  
**Arrasaten.**

Hain ondo zaindu nahi  
zaitugunez, **Arrasaten bertan**  
ere artatuko zaitu Zuatzu  
klinikako espezialista-taldeak,  
20 urtetik gorako esperientzia  
duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.  
Jaio aurreko diagnostikoa.  
Bularretako patologia.  
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)  
20500 Mondragón  
943 792 018



[www.clinicazuatzu.com](http://www.clinicazuatzu.com)



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlanean izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.: 943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñati Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñati Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## Oñatiko kale giroaren defentsan

Mikel Letamendi eta Ane Ugarte

Kale zaharreko bizilagun talde bat berriz kexatu da kaleko gauetako zaratarengatik. Hainbestera ote da?

Azkenaldian neurri ugari hartu dira kale giroa murrizte aldera. Lau taberna (Pako, Luis, Iturri eta Txaketua) hilabetez itxteko zigortu dituzte; Pako eta Onari beste hilabetez musika jartzea debekatu diote (ixtearen pareko); zenbait tabernari isun ekonomikoak jarri dizkiote; zapatu askotan ertzainak ibili dira kale zaharrean, zaintza lanetan eta tabernak itxen.

Gauza jakina da azken urteetan nabarmen murriztu dela kale giroa. Tio-tiei sarritan entzun diegu esaten, *"lehen bai juergia, ostiral, zapatu eta domekatarik. Eta astian zihar txikiteua"*.

Sare sozialek (instagram, whatsapp ..) harreman modu berriak ekarri dituzten garai hauetan, asko jaitsi da kale giroa, baina oraindik ere, gutxituta baina badirau.

Kaleak erlazio berriak bideratzeko balio digu. Kuadrila desberdinetako gazteok elkar ezagutzen dugu, aurrez aurre elkar ikusi eta elkarrekin harremanetan gara. Zorionez, Euskal Herrian (Europa gehienera ez bezala) gaur egunera arte mantendu den ohitura da.

Ez dugu mozkorkeria eta desfasea defendatu nahi eta uste dugu kale zaharreko bizilagunek errespetua merezi dutela. Bolumenak eta ordutegiak neurtu egin behar dira, baina azkenaldian herritar talde horrek izan duen jarrera gehiegizkoa dela iruditzen zaigu. Udalari neurri zorrotzak hartuarazi dizkiete, baina neurriok, dirudienek, motz geratzen dira herritar horientzat eta gogorrago egiteko eskatzen ari dira. Hala adierazi zuten urriko Kontzejupetik-eko eskutitzean.

Oñatiko kale giroa inoizko apalena izatera iritsi den garaioan, zigor gehiago eskatzen

ote duzue? Geratzen den giro hondarra guztiz desagerrarazi nahi ote duzue?

Gazteok ez gaude konforme.

Oharra: Esteka honetan 335 sinatzaileen babesa jaso dugu. (<https://chn.ge/2COkGqy>).

## Zaindu dezagun San Martingo hariztia

Jose Antonio Amundarain eta Imanol Biain

Herritarren partehartzea indartu asmoz 500.000 euroko inbertsioa zertara bideratu litekeen jakiteko proposamena luzatu digu Udaletxeak, gure nahia azaldu eta 10 ekintza aukeratuaz 38en artean.

Gure Munduaren etorkizunaz kezkatuta gabiltz aspaldi honetan eta badakigu gure bizi-molde honekin ingurugiroa kutsatzen ari gerala; saiatu beharko gara ohitura hobeto hartzen eta herrian bertan dauzkagun natur guneak zaintzen, esatebaterako San Martingo hariztia.

Azken urteetan bidegorri asko egin dira Oñatin bere argiteri eta guzti eta jendeak badu aukera oinez, bizikletan eta korrika egiteko, baina badirudi batzuentzako ez dela nahikoa, proposamena behintzat hor dago, eta herriaren gaintxoan daukagun harizti zoragarrian badirudi atletismo pista egin nahi dela eta gainera gauerako argia ere ez dadila falta jakina.

Udaletxeak, aukeren artean eskaera hori ere sartu egin du eta ez dago ze esanik, proposamen bezala, hala eskatu baldin bada, besteekin batera egoteko eskubidea du

Bainan, bikoteentzako, haurrentzako, helduentzako, gazteentzako, mundu guztientzako atsedean leku behar duenak, naturaz gozatuaz lasaitasun ederrean eta gainera txori, pizti eta gainontzeko zorroak bizitzeko paregabea denak, ez ahal du merezi errespetatzea, zergaitik ikutu behar da paraje horrek, bere horretan, duen abe-

rastasuna.

Korrika egiteko pista behar bada begiratu beharko da nun egin, nola egin eta zenbat diru gastatu behar den, baina San Martingo hariztiak beste funtzio eta baloreak ditu eta zaindu dezagun guztion mesederako.

## Trapu zikinak astintzen

Maddi Txintxurreta Maiztegi

Espainiar estatuan eta, oro har, Europan, gauzak nahiko gaizki doazela iristen zaigu komunikabideetatik: krisi ekonomikoak, ustelkeria, etab. EAEn, ordea, oasi moduko batean bizi omen gara, eta garai onenak bizitzaren ari ez bagara ere, badirudi egoera ez dela hain gordina: ekonomikoki ez gaude hain gaizki, krisiaren ondorioak ez dira hain latzak (esate baterako langabezia tasak ez dira hain altuak), gure ogasunen diru bilketa ona izaten ari da urtez urte, etab. Dauzkagun konpetentziei esker, Eusko Jaurlaritzak bestelako kudeaketa bat egiteko aukera dauka, eta profesionalen osatutako gobernu honek behar bezala erantzuten omen dio bizi dugun garai gorabeheratsuari. Hori da, behintzat, PNVk behin eta berriz helarazten digun mezua.

Tarteka, ordea, bestelako berriak ere agertu izan zaizkigu komunikabideetan: ustezko ustelkeria kasuak (De Miguel kasua dugu une hauetan entzutetsuena), gainkostu esanguratsuak obra publikoetan (ia %50era iritsi dira AHTaren zati batzuetan), osakidetzako OPEen eskandalua, lagunaren arteko mesedeak, etab. Hau da, badirudi ustezko "euskal oasi" honetan ere badaudela gertaera ilunak, eta gai hauen inguruan gehiago jakin nahiko genukeen herritar talde batek orain arte apenas landu diren auzi hauek argitara ateratzeko hautua egin dugu.

Horretarako, *astintzen* dinamika jarri dugu martxan. Orain



## Hostoak erori eta perretxikoak hazi



Urtaro  
aldaketarekin

batera, naturak irudi koloretsu eta biziak uzten dizkigu. Erori eta hil berri diren hosto sikuek, bizitzaz beterik datozen perretxiko berriei ongi-etorria egiten diete.



MAIALEN IRAZABAL

### Ohar eta deialdiak

## PINUAREN GAITZARI BURUZKO HIZKETALDIA GAZTETXIAN

arte iluntasunean mantendu nahi izan dituzten gaiak plazara atera eta hauen inguruko eztabaida publikoa sustatzea da gure helburua, eta horretarako hitzaldi ziklo bat burutuko dugu datozen hilabeteetan. Lehenengo hitzorduan osakidetza OPEen eskandalua izango dugu mintzagai. Horretarako, Rebecka Ubera (EhBilduko Legebiltzarkidea), Karlos Iburguren (Epaia-mahaietan dabilen medikua) eta Jesus Oñate (LA-Beko ordezkaria) izango ditugu Azaroaren 7an arratsaldeko 19:00etan Kultur Etxean.

Azken urte luzeetan Eusko Jaurlaritzan egon den kudeaketa ereduaren inguruan eztabaidatu eta ezkutatu izan diren hainbat kontu argitu nahiko genituzke hitzaldi ziklo honetan, eta esan beharrik ez dago Oñatiar guztiak daudela gonbidatuta. Animatu eta parte hartu!! ■

Nahikoa da ingurura begiratzea pinudiak gorri-gorri daudela ikusteko. Bai Oñatin eta bai Gipuzkoa eta Bizkaia osoan, eta Araba iparraldean, halaxe daude pinuak –batez ere, insignisa-. Gaitz batek eraso egin die eta horien etorkizuna kolokan dago gure lurretan... baliteke urte gutxira gure paisaia errotik aldatzea...

Horregatik orain da eztabaidarako eta gogoetarako momentua: bertako zuhaitz hostozabalak bultzatu behar ote dira (haritza, lizarra, gaztainondoa, astigarra, urkia, etab.)? Edo kanpoko hazkuntza azkarreko espezieak (eukalipto, Cryptomeria japonica, etab.)? Edo bietatik behar ditugu? Zein beste kudeaketa eredu daude? Zein da Aldundiak ezartzen dituen diru-laguntzen norabidea? Zer proposatzen dute Kolore Guztiak Basoak Plataformako bultzatzaileek? Gipuzkoako Basozainen Elkarteko bi kide gonbidatu ditugu gai horiek guztiak azaltzeko.

Hizketaldiaren ondoren, gaian sakontzeko beste eztabaida batzuk jarriko ditugu mahai gainean: monolaborantza, egurraren industria, energia eredu, baso-fruituen aukerak, etab.

Parte hartu nahi duzuenok gonbidatuta zaudete azaroaren 30ean, ostirala, arratsaldeko 20:00etan Antixenako Gaztetxian egingo dugun afari-tertiaria.

## 'AUZOKO' EKIMENERAKO EUSKALDUNAK (Auzotarrak) BEHAR DIRA

Aurten ere 'Auzoko' ekimena jarriko du abian Udalak, Euskaltzaleen Topagunearekin batera. Bere helburua da herrian ditugun kultura eta hizkuntza desberdinak aintzat hartzea eta elkar ezagutzea, betiere euskara eta euskal kultura ardatz eta guztion arteko loturatzat harturik. Auzoko-n pertsona desberdinek har dezakete parte: **Auzotarrek** (euskara menperatzen duten pertsonak) eta **Auzokideek** (euskara ez dakiten edo oso ongi menperatzen ez dutenak). Guztiak talde bat osatzen dute eta astean ordu eta erdi - bi ordu irauten duen saio ludikoak (jolasak, tailerrak, afariak, ibilaldiak...) egiten dituzte. Euskarara eta euskal kulturara gerturatu nahi duten herritarrei laguntzeko prest bazaude, zatoz azaroaren 5ean (19:00) Bidebarrieta 16ko lokalean egingo den aurkezpen ekitaldira. Informazio gehiago: 655351564 / [onati.azoko@topagunea.eus](mailto:onati.azoko@topagunea.eus).

### GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47  
Oñati

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Gure ekintzen berri emango duen atala...

## JOLASAREN GARRANTZIAZ

Gure aitona amonen garaitik gaur egun arte jolasak bilakaera nabarmena izan du. Espazio, material-jostailu eta denborari dagokionez, garai artan denbora gehiago zuten, espazioa kalea zen eta material-jostailu oso gutxirekin jolasten zuten. Gure gurasoen garaian berriz, denbora gutxituz joan zen arren denbora asko ematen zuten jolasean, hauek ere kalean egiten zuten eta material zein jostailu gehiago izaten hasiak ziren. Guk eta gure seme alabek berriz jolaserako denbora gutxi izan eta daukagu. Espazio mugatuak ditugu horretarako, jolas parkeetan jolasten gara eta material-jostailu oso sofisticatuak ditugu.

Bestetik, jolasak espontaneoak izatetik gidatura izatea pasa da, eta gaur egun berriz ere jolas librearen inguruko garrantziaz hitz egiten hasi gara. Ludoteka zein Txatxilipurditik bideratzen ditugun proiektu ezberdinek jolas espontaneoak dute ardatza, eta hezitzaileak programatu eta jolasak gidatuz haurren jolas espontaneoan bidelagun izatera pasatu gara. Hala ere momentu batzuetan helburu zehatz batzuetarako jolas gidatuak ere erabiltzen ditugu.

Baina zergatik jolas espontaneoak?

Jolas espontaneoaren bitartez norbera bere buruarekin konektatuta egoteak nor garen eta zer sentitzen dugun (gure beharra, beldurrak, nahiak,...) konturatzea dakar. Etengabe, norberaren barnera begira egotea da. Haurrak jolas espazio batera sartzean, aukera eta proposamen desberdinak izaten dituzte aukeratzeko, eta honek norberarekin konektatzeko aukera paregabea ematen du:

- Zer egin nahi dut?
- Zer gustatzen zait?
- Zer nahiago dut?

Hau da,

- Nor naiz?
- Zeintzuk dira nire mugak? Non bukatzen naiz ni eta non hasten dira besteak?
- Nor aukeratuko dut nire bidaiarako lagun?
- Taldeko kide sentitzen naiz?
- Zer da elkarbanatzea? Ematea?

Jolasa haurrentzako erronka bat da. Haurren ikaste prozesua beraien hipotesietatik abiatzen da beraz. Ezagutza berriak, munduaren ezagutzan jolasaren bidez izandako bizipenetatik dakiten horiekin erlazionatu, moldatu eta zabaltzen dute. Eta esanguratsuen dena aurkitzen dute. Prozesu hau interes, behar eta eskaera ezberdinak dituen talde batean gertatzen da.

Honetarako, testuinguru egoki bat sortu behar da eta hainbat adituk gomendatzen dizkigute, batetik, kalitatezko eta kantitatezko denbora eskaintzea, eta bestetik, eskaintzen zaien espazioak haurrek erabiltzeko aukera edukitzea. Hemen hezitzaile, guraso etab kezka nagusia mugak noiz eta zelan ezarri izaten da. Eta ez da lan erraxa, baina geuk ere gaizki egiten ikasi dugu.

**Ane Anduaga Moyua**

*Txaloka Ludotekako Heziketa proiektuko koordinatzailea*

**AZAROKO AGENDA:** 2018/11/4 Go!azen aurre estreinaldia gaztelekuan (17:00 eta 18:30). Sarrera dohain baina tiketa hartu behar da. | 2018/12/2 Caboverde (Madrid) musika taldearen kontzertua gaztelekuan (12:30). Sarrera 5€.



M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

### HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LERIOAK, LUB FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

## Hasier Agirre aforismogilea



**E**rabateko pentsamendu osoa biltzen duen eta mezu edo sententzia garrantzizkoa daraman esaldi laburra da aforismoa. Itxuraz sinplea da: lerro bat edo bikoa, baina "gutxi horrek asko hartzen du". Probokatzailera, ironikoa, poetikoa eta sakona da..

Badira Literaturaren eta gure kulturaren baratzean aforismoa landu dutenak: Aurreko batean, Karlos Linazasoro tolosarra ekarri nuen hona. Gaurkoan, Hasier Agirre.Tolosarra bera ere. "Zaharrak aberrri" aforismo liburua argitaratu du.1500bat sartu ditu. EHUko Aforismo Le-



**Bittor Madina**

hiaketaren irabazlea da. Gainera, Zarko Petan aforismogile eslobeniar famatuaren itzultzailea da.

Hona hemen bere liburutik jasotako batzuk.

- Ez dakigu euskera nondik datorren.Gaitz erdi, nora doan bagenek.

- Bihotzean izango zaitut beti, nekatzen naizen arte.

- Galileok bazekien mundua borobila dena, baina agian ez buru asko koadratuak direla.

- Bikote-terapia batean galarazten dizuten lehen gauza ironia da.

- Heriotza sendagaitza da, baina bizitzaren gaitz guztiak sendatzen ditu.

- Mendingo agurtzen ez duenaz zera pentsatu izan dut beti: nolakoa ote da kalean!

- Ni naiz, zu naiz, hura naiz, gu naiz, zuek naiz, haiek naiz.

- Herri xelebrea gurea: nazio bat, bi estatu, hiru administrazio eta lau katu.

- Egizu lehen hitza beti euskeraz, eta, zorteko bazaude, baita bigarrena ere.

- "Tolosarrok euskaraz bizi gara" letreroak Tolosarako ere ez du beti balio.

- Zure eta nire eskubideak berdinak dira, baina, zu nirea zarenez, zure eskubideak nireak ere badira.

- Maiatzaren bata Langilearen Eguna da. Urteko beste guztiak enpresaburuena.

- Nazionalismoa bidaiatuz sendatzen da; barka, sendotzen da esan nahi nuen.

-Jauna, emaiozu mundu guztiari eguneroko ogia. Berdin du atzokoa bada!

- Ez da euli bat hiltzeko gauza, baina horrek ez du esan nahi hilda ikusi nahi ez dituenik.

- Zaborrontzia erretzeagatik, txartel gorria. Torturatzeagatik, horirik ere ez?

## Hezkuntza sistemaren gabeziak



**A**urrebaluazioen garaietan sartuta, irakasleok nahiko lanpeturik gabiltza ikasleen azterketak zuzendu, notak igo eta epaile gisa, haiek egin eta egin gabekoa epaitzen. Aurreproba hauek ondo etortzen dira ikasle eta irakasleok, elkarrekin aztertu dezagun lehen bi hilabete hauetan egindako ibilbidea.

Hala ere, hezkuntza-sisteman nabarmentzen diren hutsuneak dira irakasle bezala kezkatzen nautenak. Oraingo irakasleak, geroko herritar eta pertsona helduak, garatuak, konzienteak



**Amaia Aranzeta**

izango direla jakinda, zertan datza benetan, gaur egungo hezkuntzak, pertsona-izaera horrekiko?

Gauza bi argi dira. Bata, programazioaren limitazioak, ez duela ikasleen sormena eta ekintzailatasunerako lekuri uzten, ezta horren baitan beharrezko ikusten ditugun aldaketak egiteko ere. Irakasleok kurtsoan zehar, hezkuntza-sailetik adostuta datorren programazioa bete behar dugu, ikasleek garatu beharreko kompetentzietan oinarrituta, eta horretarako, beharrezkotzat ikusten duten material zehatz batekin. Badago aukerarik, zer edo zer aldatu edo inprobisatzeko, baina limitazio hau guztiak, ikasleen hezkuntza-prozesua eta garapenean puntu aunitz jorrateke uzten ditu.

Bigarrenik, ikasle eta irakasleon jarrera. Lehenak,

hezkuntza-sistema oraindik, inposizio bezala ulertzen duelako, ez-librea eta ez-eraginkorra. Bigarrenok, maiz, larregizko lan-pilaketa dela eta, interes edo gogo falta sentitzen dugulako aldaketarako espazio urria uzten duen hezkuntza-sistema eta prozesu guzti honen aurrean. Apika, ez al da beharrezkoa, ikasle nahiak eta beharrak asetuz, gure buruarekiko auto-kritika egitea? Nolakoak izatea nahi ditugu ondorengo herritar eta pertsonak, hezkuntza eta helburuak definitzean bateratasunik ez badago? Zein da hezkuntza arautuaren berariazko funtzioa? Hauetxek, lehenbizi, erantzun beharrekoak.

**A**zken urteetako ohiturari eutsiz, kiroldegiko fitness gelako monitore zerbitzuaz arduratzen den E-goitek enpresak hainbat tailer teoriko-praktiko antolatu ditu, gune horretako ohiko dinamikiari balio erantsia emateko asmoz. "Fitness gelan ditugun baliabideei ahalik eta etekin handiena ateratzea da helburua" adierazi digu Asier Arregik. "Erabiltzaileengan sumatzen ditugun behar eta gabeziei erantzuten saiatzen gara".

Aurtengo lehenengo saioa 55 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago. Fitness gela erabiltzen ikasteko tailer orokorra izango da. Hortik aurrera hileroko tailer bat egongo da (ikus ondoko taula).

#### DOAKO SAIOK

Fitness gelako tailerretan edozein herritarrek parte har dezake, izan kiroldegiko bazkide ala ez. Bazkideentzat dohainik dira, eta besteek 5€ ordaindu behar dute tailer bakoitzeko.

Bestalde, derrigorrezkoa ez bada ere, alde aurretik izena ematea komeni da, plaza ziurtatzeko, espazioa mugatua delako eta, beraz, plaza kopurua ere mugatua izaten delako. Fitness gelan bertan eman daiteke izena aurreko egunetan.

Gogoratu, gainera, fitness gelako monitoreek entrenamendu taula edo programa pertsonalizatuak prestatzen dituztela hala nahi duten erabiltzaileentzat, bakoitzaren behar eta helburuen arabera.



Asier Arregi, E-goitek kirol zerbitzuko arduraduna

## FITNESS GELAKO tailer teoriko-praktikoak

Kiroldegiko fitness gelak eskaintzen dituen baliabideei etekina atera eta bertako erabiltzaileen beharrei erantzuteko tailerrak antolatuko ditu aurtengo lehenengo E-goitek-ek. Lehenengo azaroaren 24an izango da eta 55 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago. Fitness gela egoki erabiltzen ikasteko saioa izango da



### EGUTEGIA

#### AZAROAK 24 (10:00)

Fitness gela erabilera, 55 urtetik gorakoentzat.

#### ABENDUAK 14 (18:00)

Korrikalarientzako entrenamenduak zintan.

#### URTARRILAK 25 (18:00)

Lan interbalikoa. Intentsitate handiko tarteen arabera lan saioak.

#### OTSAILAK 9 (10:00)

TRX bidezko indar entrenamenduak.

#### MARTXOAK 15 (10:00)

Bizkarreko osasuna hobetzeko tailerra.

#### APIRILAK 5 (10:00)

Indar maximoa ezagutuko tailerra.

#### MAIATZAK 10 (10:00)

Luzaketak egiteko SGA metodoa.

#### EKAINAK 1 (10:00)

Norberaren gorputzarekin (makinarik erabili gabe) indarra lantzen ikasteko tailerra.



### Toalla derrigorrezkoa

Azaroaren lehenengo aurrera derrigorrezkoa da izerdia kentzeko toalla pertsonala eramatea fitness gelara. Kiroldegiko sarreran ipini dituzte salgai 5€tan.



caravanas



oñate



• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**  
Otaui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

[www.caravanasonate.com](http://www.caravanasonate.com)

• **BIZIKLETAK**  
• **ERREMOLKEAK**  
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**  
Otaui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65  
Atzeko kale, 32 (erakusketa)



## Migratzaileen talde bat ariko da Herriko Futbol Txapelketan

Larrañako harrera zentrora iritsi diren migratzaileen artean kirolzale eta, zehazki, futbolzale asko dago, eta gogo onez jaso dute herriko beteranoen txapelketan parte hartzeko gonbitea. Aloña Mendik utzi dizkie kirol jantziak eta 'Larraña' izenarekin parte hartuko dute txapelketan. Azaroaren 10-11ko asteburuan jokatu dute lehen partidua.



## Jose Mari Olalde nagusi plater tiroan

Berdintasuna izan zen nagusi irailaren 29an jokatu zen herriko plater tiraketa txapelketan. Desberdinketaren ostean Jose Mari Olalde jantzi zuen txapela, eta podiuma osatu zuten Jose Antonio Guridik eta Esteban Abaunzek. Urtero bezala, izen-ematearekin batutako dirua gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duen elkarte bati eman dio Pago Uso elkarteak. Aurten, ASPANOGLI, haurren minbiziaren kontrako elkartearentzat izan dira batutako 630 euroak. Pago Usok eta Aspanogik eskerrak eman nahi dizkiete txapelketa antolatzeke lagundu zuten denda eta enpresei.

## MENDI ASTEA



Hil honen bukaeran egingo da Aloña Mendiko mendi sailak antolatutako mendi astea. Hauxe da egitaraua. Emanaldi guztiak kultur etxean izango dira:

**AZAROAK 20** (19:00): Prebentzioa eta laguntza mendian (Euskal Mendi Federazioa).

**AZAROAK 27** (19:00): 'Nun dago Nun?' Mikel Diez & Xbier Urrate

**AZAROAK 28** (19:00): 'Mendi eskia Euskal Herrian'. Gaizka Itza

**AZAROAK 29** (20:00). Zine kluba: 'Al otro lado de la cuerda'. Arkaitz Yurrita.

**AZAROAK 30** (19:00): 'Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere'

**ERAKUSKETA:** Mendia eta natura argazki lehiaketako lanak ikusgai egongo dira kultur etxean, azaroaren 19tik abenduaren 2ra.

## Jokin Garai Hiru Handietako podiumean

Hiru Handiak lasterketako podiumean jarraitzen du Jokin Garai oñatiarrak. Ezin izan zuen duela bi urteko garaipena errepikatu, baina hirugarren sailkatu zen, 101,6 kilometroak 11:30:20an osatuta. Javi Dominguez (11:14:02) eta Julen Martinez de Estibariz (11:29:22) izan zituen aurretik. Bigarren postua ez zuen urruti izan, baina gustura zegoen mendi korrikalari oñatiarra egindako lanarekin.



**SAIOA ARKONADA** Donostiako 15 km.-ko lasterketan 3. sailkatu zen korrikalari oñatiarra, 59:50eko denborarekin.

## Arantzako zirkoari itzulia / azaroak 18

Aloñaiko mendi sailak hil honetarako antolatu duen mendi irteeran Arantzako zirkoari itzulia emango diote. Arantza herrian abiatuta, Mendaur (1.105 m.) igo eta Ekaizta tontoretik pasa eta gero, Arantzian amaituko da ibilbide zir-kularra. Ez du zailtasunik, baina luzea da (19,5km), gora-behera ugariarekin (1.350 m.-ko desnibela), 6-7 ordutan egiteko modukoa. Irteera goizeko 7etan izango da, eta izena emateko azken eguna, azaroaren 15a, Aloña Mendi taberna edo [alonamendi.mendi@gmail.com](mailto:alonamendi.mendi@gmail.com) helbidean.

## Karatekek maila onean



Aloñaiko karatekek sei domina lortu dituzte Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan. Karmele Egaña 1. sailkatu zen Gipuzkoakoan kumiteko junior mailan (+59 kg.) eta 3. Euskadikoan. Alazne Unzurrunzaga 2. Gipuzkoako kumiteko kadete mailan (+54kg.), Mikel Jurado ere 2. Gipuzkoako kumiteko junior mailan (-55kg.) eta 3. Euskadikoan, eta Leire Urkia 3. Gipuzkoako junior mailakoan (+55kg.).

# Mende laurden kantari

## Ganbara Abesbatzak 25 urte betetzen ditu aurten

Kontzertua eskainiko du azaroaren 11n ospakizunei hasiera emateko

Hasi berri dugun ikasturtea berezia izango da Ganbara Abesbatzarentzat. 25 urte betetzen ditu, eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuko dituzte kurtso osoan zehar. Hasteke, kontzertu berezia eskainiko dute azaroaren 11n, Oñatiko Musikegunak jardunaldien baitan. Gero etorriko dira diskoa, erakusketa eta beste emanaldi berezi batzuk. Abesbatzaren sortzaileetako bat den Oihana Diazek eman digu horien berri.



Ganbara Abesbatzaren sortzaileetako bat da Oihana Diaz

### Kantuan, nola bestela, hasiko zarete 25. urteurrena ospatzen. Nolako izango da hilaren 11ko kontzertua?

Berezia eta polita. Oñatiko 40. Musikegunak jardunaldien barruan dago, eta orkestra batek (biolinak, biolak, txeloak, kontrabaxua eta pianoa) lagunduta ariko gara kontzertuaren bigarren erdian. XX. eta XXI. mendeko obrak abestuko ditugu.

### Ez da ekitaldi bakarra izango azaroan. Hilabete bete-betea daukazue, ezta?

Bai azaroaren 5etik 18ra erakusketa bat ipiniko dugu kultur etxean, 25 urteko ibilbidearen erakusgarri diren elementu ezberdinekin: argazkiak, diskoak, han-hemenka lortutako sariak. .

Gainera, azaroaren bigarren erdian estudioan sartuko gara, 25. urteurreneko diskoa grabatzera. Hurrengo udaberriko prest egotea nahi dugu. Liburuska bat ateratzeko asmoa ere badugu, eta emanaldi berezi bat egin nahi genuke abesbatzatik pasa diren lagunekin batera.

Eta 25. urteurrena borobiltzeko, Iker Gonzalezek guretzat

propio idatzi duen obra bat estreinatuko dugu 2019ko irailean Arantzazun. Amabirjinari eskainitako *Stabat Mater* bat da.

### Zeu zaitugu Oñatiko Ganbara Abesbatzaren sortzaileetako bat. Nola sortu zen?

Gorca Cuevaren izena aipatu behar da ezinbestean. Bere ideia izan zen. Oñati Abesbatzean ari ginen gazteoi proposatu zigun, hura utzi barik, gaztez osatutako talde bat sortzea.

Eta, hain zuzen, hasierako izenean 'Gazte' hitza azaltzen zen (Oñatiko Ganbara Gazte Abesbatza). 14 eta 19 urte arteko hamabi lagun ginen.

Orduko talde hartatik lauk jarraitzen dugu egun: Naiara Urizar, Edurne Agirre, Xabier Bikuña eta neu.

### Nolakoak izan ziren hasierako urteak?

Zailak, egia esan behar bada; taldea erregistratzeko arazoak, entsaiotarako lokala lortzeko zailtasunak... Gogoan dut kultur etxe zaharreko sotoan zegoen zeramika gelan egin genituela lehen entsaioak. Herri Eskolan ere bai, musika eskola bertan zegoen garaian, Gorritxitxin, Agustinoetako goiko solairuan...

Ostiral gauetan entsaiatzen genuen eta ordu horietan itxita egoten ziren lokalak, eta, jakina, inork ez zuen nahi erantzukizuna 14 urteko gazteei uztea. Gaur egun gustura eta eroso gaude Errekaldeko lokalean, baina hasierako urteetan miseria ugari pasa genuen.

### Nola laburbilduko zenuke 25 urte hauetako ibilbidea?

Aipatutako mixeria horiek alde batera utzita, neuri, pertsonalki, poztasun handiak eman dizkit talde honek. Lagun kua-drilla handi bat sortu genuen hasiera hasieratik, gure arteko harremana kantuarekin lotzen genuen, eta hor sortu zen fusioa oso oso inportantea izan da, une zaileri aurre egiteko. Tentsio eta estres uneak ere izaten ditugu,

jakina, lehiaketa baten atarian, adibidez, baina satisfazio eta pozak askoz gehiago dira, eta indarra ematen digute aurrera jarraitzeko, ilusioz.

**2003an Ejean (Zaragoza) lortu zenuten aurreneko sari potoloa, eta orduz geroztik majo gizendu duzue palmaresa.**

Gure lehenengo esperientzia izan zen estatu mailako lehiaketa batean. Oso ondo prestatu ginen eta sari pillo batekin etorri ginen. Bultzada handia izan zen guretzat.

Gero estatu mailako beste sari batzuk ere irabazi genituen, eta hori ikusita (musika adituek ere hala esaten ziguten), jauzi bat eman eta nazioartera begira jartzea erabaki genuen. Maribor-ekoa (Eslovenia) izan zen lehenengoa; oilo-ipurdia jartzen zait oraindik pentsatze hutsarekin. Oroitzapen ederrak ditut. Laugarren saria lortu genuen. Gero, Tolosa, Spittel (Austria), Arezzo (Italia), Tours (Frantzia) eta Hungariako lehiaketak etorri dira. Irabazterik ez dugu lortu, baina sari bat baino gehiago ekarri ditugu, maila ona eman dugu, eta pozik gaude. Egia esan, salto handia dago estatu mailakoetatik nazioartekoetara.

**Zein da sekretua hainbeste urtetan goi mailan egoteko?**

Lana, duda barik. Horrekin ez dut inor beldurtu nahi, gurekin kantuan egiteko gogoz baldin badago. Nik neuk hiru seme-alaba ditut, eta iristen naiz entsaioetara.

Lana egin behar da, bai, baina gure artean dagoen giro onak asko laguntzen du.

(Hurrengo orrira)

*«Azaroaren bigarren erdian diskoa grabatuko dugu, udaberrian aurkezteko»*

*«Lagun kuadrilla handi bat sortu genuen hasieratik, eta harreman hori oso inportantea da une zailei aurre egiteko»*

*«Nazioarte mailako lehiaketa bat irabaztea da nire erronka pertsonala»*



Ganbararen sorrerako taldea, goian, eta Ejea de los Caballeros-eko lehiaketa (2003) irabazi ostean, behean



## Abesbatza bat baino gehiago

Gazte abesbatza bezala sortu bazen ere, gaur egun hori baino askoz gehiago da Ganbara Abesbatza. Orain dela hamabost urte Ganbara Txiki abesbatza sortu zuten, harrobia landu eta gaztetxoaren artean musika koralarekiko zaletasuna sustatzeko asmoz, eta orduz geroztik familia handituz joan da Ganbara Abesbatzaren aterkipean. Bestalde, orain dela bi urte ahots zurien HOTS abesbatza ere sortu zuten, eta gaur egun, batekoak eta bestekoak kontuan hartuz, ia 200 lagunek osatzen dute Ganbara familia.

Azpitarratzekoak da, gainera, azken urte hauetan Ganbara Faktoriak taularatu dituen ikuskizun bereziak: *Altxorren uhartea*, *Arratoiak*, *Pinotxo*... Azken honekin goia jo dute, Kursaal, Euskalduna eta Gayarre aretoak bete baitituzte, besteak beste.

Eta proiektu horiei guztiak aurrera ateratzeko eta Oñatiren izena munduan zabaltzen jarraitzeko, bazkide kanpaina jarri du abian Ganbara Abesbatzak. Ganbararen **Lagun** (15 €) edo **Bazkide** (50 €) egiteko aukera dago, onura ezberdinen truke.

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

**Zuzendariek ere izango dute 'erru'rik ala?**

Handia. Gorca Cuevak abian jarri zuen abesbatza; Esteban Urzelaik (1996-2006) murgildu gintuen lehiaketen zurrunbiloan, eta Aitor Biainek (2006-) gorenera eraman gaitu. Oso aktiboa da; oso garbi ditu ideiak, eta estutzen bagaitu ere, lortzen du nahi duena.

**Zer dedikazio maila eskatzen du Ganbara bezalako abesbatza batek?**

Ostiralero egiten dugu bi orduko entsegua (22:00-24:00), eta hilean bi intentsibo (larunbat arratsalde edo igande goizez). Lehiaketa edo emanaldi bereziren bat dagoenean extrak egiten ditugu.

**Zein osasun egoeratan iritsi da abesbatza 25. urteurrenera?**

Oso ondo. Hogeita hamarretik gora lagun gaude taldean eta kopuru polita da. Desorekatuta gaude, gizonezkoen ahotsak gutxiago direlako, baina hori beti egon den eta egongo den arazoa da, tamalez. Gainerakoan, gogotsu gaude, erronka berriei ekiteko prest.

**Zein da hurrengo erronka edo ametsa?**

Nirea, pertsonalki, nazioarte mailako lehiaketa bat irabaztea izango litzateke. Estatu mailan lortu beharrekoak lortu ditugu, (sari nazionala birritan lortu dugu) eta gure erronka da orain sari potolo bat ekartzea atzerititik. Bi urtean behin parte hartu ohi dugu nazioarteko lehiaketetan, eta gure asmoa da Varna-kora (Bulgaria) joatea 2020an.

**OÑATIKO 40. MUSIKEGUNAK****'Harian', Eñaut Elorrietaren proiektu berria ezagutzeko aukera Oñatin**

Azaroaren 4an hasi ziren Oñatiko 40. Musikegunak *Duo L'Incontro* bikotearen kontzertuarekin. Hurrengo igandean (azaroak 12) Ganbara Abesbatzaren kontzertua egongo da, eta jardunaldiak borobiltzeko, Eñaut Elorrietaren 'Harian' izeneko proiektu berria ezagutzeko aukera izango dugu, Santa Ana aretoan, 19:00etan.

Ohiko musika banda alde batera utzi eta hari boskote batekin ariko da musikari gernikarra.

*Kaabestri String Esemble* taldeko kideak (Oscar Lopez, Igor Torre eta Arkaitz Martinez biolin jotzaileak, Jon Arraz txeloa eta Paloma Torrado kontrabaxua) izango ditu taldekide, denak ere Euskadiko orkestrako musikariak. 'Harian' kontzertu birarako sortu dituzten kantu berriez gain, Elorrietaren erreperitokioko hainbat abes-tiren moldaketa ere eskainiko dituzte. 'Harian' birako bigarren kontzertua izango da Oñatikoa.


**Aita Madinaren obra bat estreinatu dute**

Francisco Madina (1907-1972) konpositore oñatiarraren 'Gitarra eta soka orkestrarako erlijio-musikako kontzertua' estreinatu zuten urriaren 26an Eibarko Coliseo aretoan. Ikerketa lan luze baten ondoren, Pedro Palacinek berreskuratu eta orkestratu duen obra da. Andres Egiguren orkestrak interpretatu zuen eta Eduardo Baranzano, Nafarroako kontserbatorioko katedraduna, aritu zen bakarlari. Madinaren obra ezberdinen estreinaldi serie baten lehenengoa izan omen da.

**IKUS-ENTZUNEZKOA****'Kameraren begitik, naturari klik-klik'**

Udal Euskaltegiak antolatuta, Julen Auzmendi Matxain argazkilarik legazpiarraren ikus-entzunezkoa ikusteko aukera izango dugu hilaren 22an, euskaltegian bertan, 18:00etan.

Argazkilaritza eta musika alorrak landu izan ditu gaztetatik, hainbat ikastaro, erakusketa eta ikus-entzunezko antolatuz. Honako honetan Euskal Herriko hirurehun eta hogeita hamar irudi ikusiko ditugu hamabost argazki-sortatan banatuta eta hamabi euskal kantariren hamabost kanturen doinuekin ezkontuta. Hogeita hamazazpi minutuko lanean egileak omenaldi xume bat egin nahi izan dio oso gogoko duen naturari zein euskal kantagintzari oro har, hala bere gustuko kantariei nola gainerako guztiei ere.



**AZAROAK 22,  
OSTEGUNA,  
EUSKALTEGIAN,  
18:00**



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



## Harlem-en sortua

Kontrabaxu, haize instrumentu eta bateriaren erritmora egiten den *jazz* mota bat da *swing*-a. 1920ko hamarkadan garatu zen Estatu Batuetan komunitate afro-amerikarraren eskutik. Modu ezberdinetan dantzatzeko da. *Lindy Hop* izenekoa da ezagunena (Oñatiko taldean egiten dena). New York-eko *Harlem* auzoan sortu zen, eta berehala bilakatu zen Estatu Batuetako dantza estilorik popularrena. II. Mundu Gerraren ostean baztertua geratu zen baina azken urteotan susperraldia bizi du

# SWING-a ondo pasatzeko dantza

## Swing dantza ikasi eta praktikatzeko taldea sortu da Oñatin

Dantza egitea gustuko duten herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte

*Swing* dantzarako zaletasuna hedatzen ari da. Gero eta gehiago dira musika mota honetaz gozatzeko lokalak, hiriburuetan batez ere, eta Oñatin ere sortu da talde bat.

luz, herriko jaien ostean osatu zen taldea, *swing*-a dantzatzeko ikasi eta praktikatzeko gogoak bultzatuta. Ikasturte osoa egin zuten eta orain, udako etenaldiaren ostean, berriz ere martxan jarri dira.

Oraingoz 18 bat lagun dira taldean. Astean saio bat egiten dute, asteazkenetan (18:30-20:00) *Eltzian*, eta horrez gain, beste egunen batean elkartzen dira, *Eltzian bertan*, irakaslearekin ikasitakoa praktikan jartzeko.

### ATEAK ZABALIK

Azaroaren 7an egin dute ikasturte berri honetako aurreneko saioa, eta lerro hauetatik gonbita luzatu nahi dute interesatuta egon daitezkeen herritar guztiei: "dantza egiteko eta, batez ere, ondo pasatzeko gogoak duten herritar guztiak animatu nahi ditugu, oso dantza alaia eta dinamikoa baita *swing*-a".

Ez omen da zaila *swing* musikaren erritmora dantzatzea. Teknikak edo mugimenduen perfekzioak ez dauka hainbesteko garrantzirik *swing*-ean, eta oinarrizko pausuak ikasi ondoren, inprobisaziorako eta norberaren sormenerako aukera asko ematen dituen dantza da.



Asteazkenetan (18:30-20:00) dira  
saioak *Eltzian*. Interesatuak deitu

617 993 062 zenbakira

### DANTZA SOZIALA

Bikotean dantzatzeko da, baina dantzarien aurrez aurreko postura itxiaz gain, bestelako postura eta mugimendu ireki asko ditu. Oso dinamikoa da. "Gainera, dantzatik dantzara bikotea aldatzea da ohikoa, eta alde horretatik dantza soziala dela esan daiteke. Jende asko ezagutzeko bidea ematen du" adierazi digute taldekideek.

"Terapia" bezala ere oso gomendagarria omen da. "Oso dantza alaia da; jendeak barre egiten du dantzatzeko duen bitartean,

eta dantza saio baten amaieran daukazun satisfazio maila handia da. Dantza egitea gustuko baduzu, benetan gozatzeko aukera ematen duen estiloa da hau". Gonbita eginda dago.

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)

Jaione San Miguel Ugarte  
 **MAPFRE**  
OÑATI

**Laburmetrai rallya**

IX. Laburmetrai rallya. Izen-ematea [olrallya.wixsite.com/olrallya](http://olrallya.wixsite.com/olrallya)  
08:00, Gaztelekua

**Dokumentala**

'Bideak gurutzatzen' emakume musulmanen gizarteratzeari buruzko proiektioa  
18:30, udaletxea

**ODOL ATERALDIA****AZAROAK 9****ODOL ATERALDIA**

Enpresagintza fakultatean  
17:00-19:00.

**HITZALDIAK****AZAROAK 6 / 17:30****EL ESTRAPERLO EN LA POSGUERRA Y SUS PROTAGONISTAS**

Hizlaria: Jose Antonio Azpiazu. Pake Lekun.

**AZAROAK 7 / 19:00****OSAKIDETZAKO OPEen ESKANDALUA**

Astintzen dinamikak antolatuta. Hizlariak: Rebea Ubera (EH Bildu), Karlos Iburguren (medikua) eta Jesus Oñate (LAB). kultur etxean.

**AZAROAK 14 / 19:00****ELKANO, ITSASOA ETA EUSKALDUNAK**

Hizlaria: Jose Antonio Azpiazu. Kultura etxean.

**AZAROAK 20 / 18:00****EDUCACION EMOCIONAL Y PARENTALIDAD POSITIVA**

Txantxiki Familia Elkarteak antolatuta, kultur etxean.

**AZAROAK 21 / 19:00****OÑATI EUSKO IKASKUNTZAREN I. KON-****AGENDA****Antzerkia**

Ttanttakaren 'Como un viento helado' antzezlanak ikusgai. Lan honekin abusuari buruzko trilogia ixten du, 'Muxua' eta 'Giltzadun etxea' obren ostean. Sarrera 10€.  
19:30, Santa Ana

**GRESU GARAIA**

Hizlaria: Jerardo Elortza. Kultura etxean.

**AFARI TERTULIAK****AZAROAK 16 / 20:00****PENTSIOAK**

Pentsioen inguruko afari-tertua 'Duintasuna' elkarteko kideekin. Antixena gaztetxean.

**AZAROAK 30 / 20:00****PINUAREN GAITZA**

Banda marroia gaitzaren inguruko afari-tertua, Gipuzkoako Basozainen Elkarteko kideen eskutik, Antixena gaztetxean.

**TAILERRAK****AZAROAK 15 / 17:30****AUTODEFENTSA FEMINISTA (Sakontze)**

Emakumeen Jabetze Eskolak antolatuta. Euskaldun Berri gelan

**KONTZERTUAK****AZAROAK 9 / 22:30****REVOLTA PERMANENT + THE RODEO IDIOT ENGINE**

Rap talde bizkaitarra eta Baionako post-metal taldea Gaztetxean (5€ / ikasle eta langabetuak 3€).

**AZAROAK 11 / 12:30****DON INORREZ**

Bide Ertzean taldeko Imanol Ubedaren bakarkako proiektua. 'Muga bila' lan berria aurkeztuko du Gaztetxean (5€ / ikasle eta langabetuak 3€).

**AZAROAK 11 / 19:00****WHAT A BAND**

Country-rock musika egiten duten Bergarako taldea ariko da Itturri tabernan.

**AZAROAK 25 / 19:00****NEVADAH**

Rock&rolla egiten duen Durangaldeko boskotea ariko da Itturri tabernan.

**MUSIKA****AZAROAK 5 / 18:00****GOIZ ARGI ETA ALOÑA**

Goiz-Argi (Hernani) eta Aloña (Pake Leku) abesbatzen kontzertua, Santa Anan.

**AZAROAK 22 / 17:00****SANTA ZEZILIA EGUNA**

Musika Eskolako kalejira eta emanaldia azoka plazan. Txokolate beroa. Gero musika banda eta txistulariak.

**AZAROAK 24 / 12:30****HERRIXA KANTUAN**

Kantu-jira. Foruen plazan.

**AZAROAK 25 / 12:45****MUSIKA BANDA****CORTABARRIA**

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: [inkorta@teleline.es](mailto:inkorta@teleline.es)

**MODA BEREZIA**

Kale Barria, 12  
Tel. Faxa: 943 71 62 40

Santa Zeziliako eguneko kontzertua, Santa Anan.

### ANTZERKIA

**AZAROAK 9 / 17:30**  
**'JUZGADO DE GUARDIA'**  
Pake Lekuko Ikusi-Makusi taldeak *Juzgado de Guardia* antzezlan taularatuko du. Pake Lekuko bazkideentzat.

### JAIALDIK

**AZAROAK 7 / 18:00**  
**GAZTAINA JANA ETA DANTZALDIA**  
Pake Lekun. Txartela: 1€.

### BINGOA

**AZAROAK 8 / 17:00**  
**BINGO BEREZIA**  
Bingo berezia, opari eta guzti, Pake Lekun.

### PAILAZOAK

**AZAROAK 17 /**  
**TOMAXEN ABENTURAK**  
'Espien eguna' ikuskizuna Zuazola institutuko antzokian. Bi emanaldi: 16:30 eta 18:00. Sarrerak (4,5€) Kiku, Mizke eta Candeluca dendetan salgai. Bi urteko haurrak doan, baina tiketa hartu behar dute.

### ERAKUSKETAK

**ARGAZKI ERAKUSKETA**  
"Oñati Eusko Ikaskuntzaren I. kongresu garaian". Parrokian. Azaroak 19-25.

**ESKULTURA ERAKUSKETA**  
Esteban Kerexetaren eskulturak ikusgai turismo bulegoan urtarrilaren 13ra arte.

### LIBURUTEGIA

**AZAROAK 29 / 18:00**  
**IPUIN KONTAKETA**  
Ostegun Kontalariak. 3-5 urteko haurrentzako saioa, Saioa Aizpuruaren eskutik. Gonbidapenak hilaren 19tik aurrera.



### Hileko gomendioa

Yolanda Arrieta, **Bizenta txiki**, Denonartean. Aspaldi hartan ere baziren emakume argiak. Horietako bat: Bizenta Mogel Elgezabal. Euskarazko lehen emakume idazlea izan omen zen. Nolako ote zen txikitari? Ezagutu nahi?

### Liburua



### FARMAZIA

**ANDUAGA**  
**San Lorentzo 3**  
☎ 943 78 21 16  
Azaroak 5, 6, 14, 15, 23, 24, 25, eta abenduak 3,4.

**IGARTUA**  
**Kale Zaharra 1**  
☎ 943 78 01 22  
Azaroak 7, 8, 16, 17, 18, 26, 27 eta abenduak 5.

**GARATE**  
**Kale Barria 42**  
☎ 943 78 05 58  
Azaroak 19, 20, 28, 29 eta abenduak 7, 8, 9.

**IULDAIN**  
**Kale Barria 6**  
☎ 943 78 11 28  
Azaroak 2, 3, 4, 12, 13, 21, 22, 30 eta abenduak 1, 2, 5.



## ZINEA



### Azaroak 8-12

**ZINE KLUBA:**  
**Amante por un día**  
**NAGUSIAK:**  
**El árbol de la sangre**  
**GAZTETXOAK:**  
**Los futbolísimos**

### Azaroak 22-26

**ZINE KLUBA:**  
**Custodia compartida**  
**NAGUSIAK:**  
**La sociedad literaria y el pastel de piel de patata**  
**GAZTETXOAK:**  
**Horma erlojua duen etxea**

**Zine-kluba:** Osteguna (20:00)  
**Nagusiak:** Ostirala (22:30) eta Larunbata (19:30 eta 22:30)  
**Gaztetxoak:** Larunbata-Igandea (17:00)  
**Ikuslearen eguna:** Astelehena (19:30)

### Azaroak 15-19

**ZINE KLUBA:**  
**La revolución silenciosa**  
**NAGUSIAK:**  
**Ha nacido una estrella**  
**GAZTETXOAK:**  
**Small foot**



### MERKATU TXIKIA

**BABIA SALGA** Babia salgai dago Duruan baserrian. Interesa duenak deitu 943782763.

**GARAIE ITXIA** salgai Olakua 9ko sotoan. 12,98 m2 eta aluminiozko sarrerako ate berria, eroso eta arina. Oso prezio interesgarria. Deitu konpromiso barik: 626 410 903.


**GARAIEA SALGAI** Ugarkalde auzoan, 5-6 atarietan. 18 m2. 17.000 euro. Harremanetarako deitu 647 515 257 edo 610 751 017 telefonoetara.

**Tel.:943 78 20 72**  
**Posta-e: kontzejupetik@onati.eus**



*Amaia Igartua*  
**ARKITEKTURA ESTUDIOA**

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)  
-Ilogailuen eta 0 kotara proiektuak -Eraikinen mantentze planak (PUM)  
-Jarduera lizentziak -Fatxaden eraberritze energetikoa -Diru laguntzen gestioa  
tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

 Jerardo Elortza  
eta Xabier Zelaia



# OÑATI

**KALERIK**  
-  
**KALE**



## Santa Marina (V)

**Aurreko lau zenbakitan** hamaikaxo kontu eta albiste agertu dizkizuegu Santa Marina aldeko enparantza eta inguruen gainean. Hala ere, gaia ahitzen ez zaigunez, hainbat gauza geratuko dira, derrigorrean, aipatzeko edo behar bezala garatu gabe. Gaurkoan, eta atal honi amaiera emateko, **kale-izen, elkarte, denda** eta bestelako batzuei buruz jardungo dugu.

### KALE-IZENAK

Argituta utzi genuen nondik datorkion auzo honi Santa Marina izena (**Santa Maiña** ahozko hizkeran): plazaburuan 1864ra arte kokatu zen adokazio horretako santari eskaini zitzaion ermitatik, alegia. Plazara datozen kaleak mendeetan zehar **makina bat izen-aldaketa** jasan baldin badute ere, inguru horri **Santa Marina deitu izan diote beti herritarrek**. Dena den, labur ditzagun izendegi horren bilakaera eta gorabeherak:

■ **Jose Moiuia kalea.** Izendapen hori 1896an ezartzen zaio Santa Marinako eremu zabal bati: egungo Moiuia kaleari ez ezik, baita oraingo Lope Agirre kaleari, plazari berari eta Patrue kaleari ere. **Jose Moiuia Lengaranen** omenez ipini zen izen hori, herriari egin zizkion mesedeak eskertu alde. Oraingo Moiuia kale hau **Santa Marinako errebal** moduan bataiatu zuen ofizialki udalak 1859an; J. Moiuia kalea izan zen 1896-1939 bitartean, baina gerra ostean **Mola kalea** bihurtu zen hainbat urtetan, Santa Marina inguruko beste alderdi batzuekin batera. Aurretik, ordea, beste herri-izen bat ere eduki zuten: **Artzainkale**, hain zuzen ere.

■ **Artzainkale.** Sarritxo agertzen da ia zeharo ahaztuta dagoen aipaturiko izen bitxi hau kontzejuko akta eta beste izkribu batzuetan, XVII. gizalditik XIX.aren amaiera bitartean. Santa Marinaren luzapen gisa egituratutako errebala osatzen zuten kale-baserrri batzuek eta artisauen etxeek ezker aldetik: **ultegin, ontzigin, banastagin, jztetxe** eta abarren lantoki eta bizilekuak: **Maletarena, Arrolarena, Ontzigiñarena, Eperretxe, Akelena...**, duela urte batzuk arte zutik iraun zutenak. Izenak berak salatzen duenez, **artzainek izango zuten zirikusirik** kale honekin; euren joan-etorrietan hemen edukiko zituzten, seguruenik, artaldeentzako behin behineko egonleku eta pausalekuak. Eskumako aldean Siervas de María ordenako mojen komentua egon zen XX. mendeko hiruzpalau hamarkadetan, orain Telefonikaren eraikinak okupatzen duen orubean.

■ **Patrue kalea.** Historia luzea eta korapilatsua da kale honen izenarena ere. Dirudenez, XVI. gizaldian-edo **Aros-tegi** zeritzon etxe bat han kokatzen zelako, horrela deitzen ei zitzaion inguru horri ere; baina ez dago horren ziurtasunik. Bestalde, Araoz-Lazarraga leinu oñatiarreko kide batzuek, Indietatik bueltatu zirenean XVI.aren bukaera aldera, hor jaso zuten euren bizitokia, ertzaren bi aldetara familiaren armarrri dotorea jarriz. Gerora **Patruekua** moduan ezagutu zen etxe handi hori; eta ematen du plaza nagusian **jesuitek zeukaten egoitzaren eta elizaren patrioiak** zirelako bereganatu zutela **“titulu”** hori. Eta hortik datorkio, nonbait, kaleari izena aspal-ditxotik. Juan Jose Araozek 1891ean saldu zien artean osorik zegoen Patruekua hainbat herritarri eta orduan moldatuko ziren bertan Zelaia, Aranburu, Maiztegi, Gorrotxategi eta beste familia batzuentzako etxebizitzak.

■ **Mola jeneralaren kalea.** Izen-nahaspilatxo honi Emilio Molaren oroitzapena gorde nahiak gehitu zion beste koska bat. Arestian aurreratu dugunez, gerra zibilaren sorreran eragin erabakigarria izandako militar matxino honi eskaini zitzaion **1939an Santa Marina aldeko eremu osoa**, ordura arteko Moiuia izendapena ordezkatzuz, eta hala jarraitu zuen 1979ra arte. Makina bat oñatiar jaio edo bizi izan da Mola kaleak iruten zuen amaraun horretan. Dena dela, zera ere zehaztu behar da: **Patrue kaleak eta egungo Moiuia kaleak lehentxoago utzi ziotela Mola kalea izateari**, 1960ko hamarkadan, Reyes Korkostegi alkate zela, jatorrizko izen zaharra berreskuratuz. Besteok, esan bezala, 1979an hartu zituzten oraindik ere mantentzen dituzten izenak: bat berria, **Lope Agirre** kalea; eta besteak antzinakoa, hots, **Santa Marina plaza**. Ea noiz arte irauten duten.



Patrue kalea 1960ko hamarkadan.



## DENDAK, TABERNAK, ELKARTEAK ETA ABAR

Nahiz eta erdiguneko beste kale batzuetan adina ez izan, inguru honetan ere ez dira falta izan merkataritza, ostalaritza eta industria txiki eta bestelako eginkizunetarako lokalak eta lantegitxoak.

■ **Elkartek.** II. Errepublika garaian bi talde politikok edukiko zuten euren egoitza soziala elkarrengandik oso hurrean, oraingo Lope Agirre kalean: **Karlisten Zirkuluak** eta **Errepublikanoen Zentroak**; eta urte gatazkatsu haietan sortu ziren hainbat gorabehera eta liskar euren artean. Errepublikazaleen lokala gerra denboran itxi zuten, baina Karlistenak frankismoan zehar jarraitu zuen. **Guardia Zibilek** ere handik urrin barik eduki zuten **kuartela**, Kale Zaharrera joan aurretik. Herriko elkarte gastronomiko zaharrenetarikoa bat, **Gure Txoko**, Patrua kalean kokatu zen 1935 eta 2013 bitartean. Azken aldian honetan, berriz, Antixeneko jauregiaren aldameneko lokal batean **Gaztetxea** aurkitzen da.

■ **Dendak, tabernak eta beste.** **Pakita altzariak** Santa Marinaran. Diseinuak, **Barue**; eta **Andrea Azkoaga** Baruekoan; **Zelaia elektrizitatea eta etxe-ko-tresnak**, Patrua kalean eta Santa Marinaran; eta orain, azken lokal horretantxe, **Magnet** softwar-produktuak. Emakumeen ileapaindegia Patrua kalean, **Baltzategi ahizpak**, Josefina eta Kontxita, Zirrunkaiñeko etxean, gerra aurreko urteetan; eta Ana Garciaren **Kima** 1. zenbakian. **Tabernak**: gerra aurretik, **Pio Elortzarena** Moiuan (oraingo Lope Agirren); eta gerra ondoren, **Xabalorena** Patrua kalean.

■ **Tailerrak, lantegiak eta abar.** Antzinako errementari, iltzein, ehule, saskigile edota ontzigileez gain, beste era batzuetako lanbideetan gizakume eta emakumeak ere aritu izan dira Santa Marinaran eta inguruko kaleetan. Patrua kaleko

etxe biren izenek horixe adierazten digute, hain zuzen: Zirrunkaiñean sasoi batean **zirrunkari** bat arituko zen, hots, gurdientzako txirringak, gurpilak egiten zituen; eta Mielkaiñean, berriz, **kapagin** bat, hau da, marragak, ganadu-mantak ehuntzen zituen.

Orduko Moiuia kaleko lehen zatian, jatorrizko **Barrenze-laineko zerra** egon zen, gero Ibarrara eramane zutena. Kale horretako 1.ean Barrena etxea berritu zutenean 1933an, **Luis Rodríguez Bareak inprenta** jarri zuen beheko solairuan eta, gudatean konfiskatuta egon ondoren, haren seme-alabek eman zioten jarraipena gerra ostean. Aurreko etxean **gaseosa** egiteko tailerra zeukaten **Iraolatarrek (Txapa)**.

**Arotz ugarik** jardun zuen Barueko etxepean, 1943an San Juan kaletik Santa Marinarara etorrita: **Pio Elortza**, **Karlos Arregi**, **Joxe Arregi**, **Migel Elortza**, **Rufino Moiuia** eta **Zerferino Ugartek**, elkarrekin hasieran, bananduta geroago; eta horiekin batera edota ondoren beste askok. Patrua kalean **Ezpeleta aterkin-fabrika** egon zen 1935etik aurrera, Garibai auzora joan aurretik; Arrazola-Ezpeleta gisa hasieran. **Zesareo Uribarriren sarraila-enpresa** ere kale bereko lokaltxo batean jaio zen, Altzibar aldera aldatu baino lehen. Patrua kalean bertan eduki zuten **perratokia Paulo eta Basilio Biain** aita-semeak XX. mende gehienera. Hurrengo atean **nekazaritzarako tresnak eta makinak** konpontzen dituzte **Maiztegitarrak**.



Errepublikanoen Zentroa eta Pio Elortzaren jatetxea aipatzen dira 1934ko orri honetan.



Arotzen tailerrak egondako lekua Baruekuan.



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



# Itten bat

(\*) Itten: arrastua, pistia

&gt;&gt; Dekalogua (II)

## Zeuren be belarriprest!

### Euskaldunakana hurreraketako jarraibidia

Betik esan izan da Oñati herri euskalduna dala, hori eztago ukaketarik, eta dakon ahalmena izugarria dala; baiña, zoritxarrez, ahal horren hamarrena be ezta ebalten geure hizkuntzia ikasten edo ezebe ezta xixeifien eskura jarteko. Normalian egunerokuan euskeraz bizitzeko hautua egiten dauenak bidelagunik ezta topaiten hizkuntza aldaketa hori egitzeko.

Hona hemen egoera horretan daguearendako kontseju batzuk, euki leikien aurreritzi batzuk baztertu eta muga horreik eresteko:



1. Trankil egon, baiña ez lotan.
2. Erne egon: ez itxi belarriak (belarriprest izan zatez)
3. Eskatu laguntzaia
4. Hasteko, billatu makulu bat: lagun min bat, senideren bat, parkeko aitta-amak, berbalagun bat...
5. Euskaldunai euskeraz egin, eta eskatu euskeraz jarraiketako, faborez.
6. Fan ohiketan bertako euskerara, bere bustidura, laburdura eta entonaziño berezkuetara.
7. Ikasi bertako lexikua eta hasi ebalten
8. Fijau ume txikiñen eta aitta-amen arteko berbetan. Bide horretatik asko ikasiko dozu.
9. Zure inguruan lagundu gura dotsun euskaldunik topaiten badozu, saiatu zatez haren hizkuntza aberatsa ikasten eta jasoten.
10. Bertako hizkeriaren gaiñeko aurreritzi kaskarrak itzi alde batera: **xixaua oso politta da.** Zeu ikasten zabilzena eta bertakuen ez ifiñi bata bestiaren kontra: bixak dira onak eta alkarrekin komunikaitteko balixo doskue.

## Letra saldia (II)

'Ur' errua benetan ugarixa da berbak sortzerunzkuan: berba-alkartuak, eratorrixak, leku-izenak, baserri-izenak, abizenak...zer ezta emuten! Ia, ba, topaiten dittuzun letra salda honetan dagozen hogeta hirurak

O	U		U	U	H	O	L	D	E	U	U	R
T	R	U	R	R	A	N	E	U	U	R	R	U
L	G	U	A	A	I	I	P	R	G	J	M	O
A	E	R	T	U	B	A	E	Z	A	A	A	K
S	L	A	S	N	R	G	R	O	R	U	E	E
R	D	L		D	U	R	U	Z	A	Z	L	T
U	I	D		I		U		O	N	I		A
Z	T	I	A	H	U	A	Z	E	G	R	U	R
U	R	T	S	U	R	B	I	T	A	R	T	E
U	R	Z	U	L	O	N	U	R	G	E	Z	A
M	E	T	A	L	U	R	T	X	A	K	U	R
	U	B	I	D	E	R	U	R	U	D	E	

**ERANTZUNAK:** Letra saldia (II): ur geldi, ur geza, uraundi, ur fauzi, urats, ur-zozo, meta-ur, uraldi, edur-ur, uholde, urtxakur, erateko-ur, ubide, Urgain, Urbia, Urepel, Urbitate (Ubitarte), urmael, Ursalto, Urzulo, Ugaran, urtsu, uhaiz

## ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



### Arrueneko lehenengo presia

**S**imon Arrue alegittarrak baimena eskatu otsan 1885ian Oñatiko udalari Uraingo torriaren aldamentetik xoiaren errekan **presa bat jaso ahal izateko**. Kontzejuaren erantzuna izan zuen kontu hori etzala bere ardurapekua eta eskabidia egokionari egiteko. Dakitzuenez, **Urain torria Zubiaurre izenez be ezaguketan da** eta Iturritxo plazatxotik hurrian dago. Urte batzuetan Garai enpresiaaren ekonomatua kokatu zuen bertan.

Jo eben Ximonek tokaiten zuen lekura eta eskuratu otsain presiori moldaitteko baimena. Zertarako bihar ete zuen? Ba, hantxe onduan, aizkorak, atxurak eta beste erremintta batzuk egiteko sortu barri eben **lantegiko errueda hidraulikuari eragiteko**. Lehentxuago leku horretan **La Trinidad** izeneko **poxpolo-fabrika** bat euki euen Juan Candaudepe eta Oñatibia aitta-semiak. Izen industrial hori Arruetarren lantegixak be ebali eben.

Lehenengo presia izan zala bota dogu tituluan. Izan be, Arrueneko fabrikiaren premiñak etziran, nunbait, Uraingo ur-salto txiki horregaz ase. Horregatik, jabiak 1890ian **bigarren presa bat eta malatua egiteko asmuari heldu otsan**. Murgizubieta edo **Poparretxeneko zubittik metro batzuk goratuago** eraiki zuen presia, Olabarrieta (Olaran) erreka gaiñian. Hantxe dago orainddiok, testigu lez, San Martin azpitan. Dana dala, etzan samurra izan buruketia, proiektuari eragozpen bat baiño gehiago jarri xakon-eta. Batzuen ustez, kaltegarria zuen inguruko bizilagunentzat errekiari hainbeste ur kentzeia, sikute-denporan batez be.

Fotografixiari erreparau ezker, **inguru hori zenbateraiño kanbixau dan** konturatuko zara: Oñati **errekia** ezta orain hortik pasaiten, 1970eko hamarkadan **desbideratu** egin euelako, gerora jaso zuen etxe-poligono barri batentzako lur-saillak irabazteko; **presatuaren** eta torretxe kontrako **malatuaren** azkenengo **arrastuak be orduan ezkutauko ziran**; ezkerraldian agiri diran **Kale Barriko etxeostiak eztaokoi ixa antzik**, gaur egunekuakin konparauta; horko eraikin gehixenak barriztau edota ordezkatu egin ziran; eta **Urain berak be**, neurri batian kanpoko itxuria mantenidu arren, **aldaketa sakonak euki zittuan barrutik**.

Ehun urte dakon argazki hau Belen Ibarrondok eskuratu dosku eta ezta kigu nork ataratakua dan. Argibidiak, berriz, Tomas Igartua eta Xabier Zelaiari zor dostegu. Milla esker danoiri!



# COINBROKER

OÑATI

ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

## Osasun aseguru on baten bila zabiltza?

DKV

FIATC  
SEGUROS

SANITAS

AEGON

asefa  
seguros

MAPFRE

AXA

*Zure beharretara egokitzen den aseguru  
aukeratzeko lagunduko dizugu!*

COINBROKER  
OÑATI  
ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9  
20560 Oñati / Gipuzkoa



943 089006



[www.coinbroker.eus](http://www.coinbroker.eus)



[oinati@coinbroker.eus](mailto:oinati@coinbroker.eus)